

1.994

ibarrizio donneurten festak

LEI
TZA

94



PLAZAOLA

16. zenbakia

AURRERA, K.E.-KO BAZKIDEEK




Herritar eta bisitari guztiei
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE


LEITZAKO UDALAK



JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE
Herritar eta bisitari guztiei

LEITZA, 1993.URTEKO PESTAK





LEITZAR ETA BISITARI GUZTIEI, AGUR:

BERRIZ ERE HERRIKO PESTAK AILEGATU ZAIZKIGU, ETA UMORE BIKAIN BATEKIN, KEZKAK, LANAK ETA BURU HAUSTEAK ALDE BATERA UTZIZ, GUSTOKO EGUN BATZUK IGAROTZEKO AUKE-RA ERE.

ZEHARBIDEKO ETA ESPALOIEN OBRAK DIRELA ETU UNE GOGORRA PASTU DA, ETA GURE ESKER ONAK EMAN NAHI DIZKIEGU BEREN JARRERA ONA ERAKUTSI DIGUTEN LEITZAR GUZTIEI, BEREN KOLABORAZIONA HAGITZ BEHARREZKOA IZANDU DELAKO LAN GUZTIAK AURRERA ERAMATEKO.

ESKERTU NAHI DUGU BAITA ERE PESTA HAUEK ANTOLATZEN ETA ALAITZEN PARTE HARTZEN DUTEN GAZTEDI GUZTIA.

GURE NORTASUNARI EUTSIZ, UMORE ONA IZAN DADILA NAGUSI PESTA HAUETAN.

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU
LEITZAR ETA BISITARI GUZTIEI.

ALKATEAK

UZTAILAK 31, IGANDEA

• **Goizeko 9etan:** Herri guztian zehar pestetako egitarauen banaketa egingen da. Leitzako gazteak, trikitilari, txistulari eta Artadi-txarangaren laguntzarekin etxez-etxe ibiliko dira.
Gogoan izan, dirua, kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman diezaieketzuela.

• **Arratsaldeko 5,30etan:** Leitzako akordeoi eskolako ikasleen emanaldia plaza. Ondoren kalejiran aterako dira.

• **Arratsaldeko 7,30etan:** Dantzaldia plazan Haritza taldearekin.

• **Gaueko 11tatik aurrera:** Dantzaldia berriro ere Haritza taldearekin.

• **OHARRA:** II. Argazki Rallian ateratako argazkien esposizioa Aurrerako goiko Aretoan izanen da.

10tatik-2etara eta 4,30etatik-8etara.



ABUZTUAK 7, IGANDEA

UMEEN EGUNA

- **Goizeko 8etan:**

Diana txistulariekin.

- **Goizeko 9etan:** Zal-di txikiak plazan.

- **Goizeko 10,30etan:** Meza Nagusia.

- **Goizeko 11,30etan:** Umeen arteko pilota partiduak.

- **Goizeko 12,30etan:**

Umeentzat jokoak:

- Soskor apustua

- Zaku saltoa

- Aulki harrapaketa...

- **Arratsaldeko 4etan:** Txirrindulariak.

- **Arratsaldeko 5,30etan:** Zalditxikiak plazan.


- **Arratsaldeko 6,30etan:** Aurrerako dantzari ttikien saio dotore bat ikusteko aukera izango dugu.

- **Arratsaldeko 7,30etan:** Herriko trikitilarien saio berezi bat.

- **Arratsaldeko 8,30etan:** Kalejira Artadi txarangarekin.

- **Gaueko 9etan:** Dantzaldia Maixa, Itziar eta Gazbiñe Trikitilariekin.

- **Gaueko 12tan:** Berriz ere Maixa, Itziar eta Gazbiñe.



ABUZTUAK 11, OSTEGUNA

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana:
– Txistulariek betiko "plegarie" joko dute.

Trikitilariek: Patxi Arrazola eta Amazabal kaleak alaituko di tuzte.

- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

- **Goizeko 10,30etan:** Meza Nagusia.
Urtero bezela, Udaletxeko korporaziokoei Aurrerako Ezpatadan tzariarik lagunduko diete.

- **Eguerdiko 12etan:** Aurrerako Ezpatadantzariak saio paregabe bat eskeiniko digute.


Ondoren Aurrera k.Eko pilota eskolak antolaturiko pilota partidua,

GALARZA – IPARRA

ARITZ – MENDIOLA

ikusi ahal izango dugu.

- **Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.
- **Arratsaldeko 6,30etan:** Bertsolariak plazan.
 - Lizaso
 - Egaña
 - Murua
 - Arozena
- **Arratsaldeko 8etan:** Gaubela taldea.
- **Gaueko 12etan:** Gaubela taldea berriz ere.



ABUZTUAK 12, OSTIRALA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana.
 - Txistulariek betiko buelta eginen dute.
 - Leitzako gaiteroak: Alde zaharrarretik hasiko dira, ondoren Manuel Lasarte zuzoa egiteko, Huarte gotzaia kaletik Jose Deunaren plazara etorriko direlarik.

- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.


- **Goizeko 11etan:** Herriko trikitilariak kalejiran ibiliko dira.

- **Goizeko 12etan:** Herri kirolak plazan.


- **Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.

- **Arratsaldeko 6,30etan:** Aurrerako dantzariak plazan ondoren bonba joponarrak.

- **Arratsaldeko 6,30etan:** Pilota partidu profesionalak frontonan. Arratsaldeko 8retan eta gaueko 12 etan Joselu anaiak taldea.



ABUZTUAK 13, LARUNBATA



- **Goizeko 7,30 etan:** Diana.

Hauak, badakizue, betikoan segitzen dute.

– Artadi txarangak berriz, Patxi arrazola eta amazabal auzoak eginen ditu.

- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

- **Goizeko 11,30etan:** Irungo akordeoi bostekoa plazan.


- **Arratsaldeko 5,30etan:** Zezenak plazan.

- **Arratsaldeko 7etan:** Parke Mugikorra eskolako, futbol zelaian.

- **Arratsaldeko 7etan:** Pilota partidu profesionalak Amazabal pilota lekuan.

- **Arratsaldeko 8retan:** Paregabe dantzaldia Akelarre taldearekin.

- **Gaueko 12etan:** Akelarre taldea berriz ere.



ABUZTUAK 15, ASTELEHENA

EZKONDUEN EGUNA

- **Goizeko 7,30etan:** Diana.
Txistulariak betiko auzoak eginen dituzte.
Gaiteroak Patxi Arrazola eta Amazabal auzoan ibiliko dira.
- **Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.
- **Goizeko 11,30etan:** Aurrera K.Eko pelota eskolak antolatutako pelota partidua

ALDAIA – BARRIOLA
 AGESTA – HERRANDONEA
 MARIÑELARENA – CASTRO
 ESAIN – BERROETA

Ondoren Aurrera k.Eak, Karlos Agirre Lehendakari ohia omenduko du. Elkartek bere urrezko ikurra emanen dio. Segituan elkarteko dantzari batek auresku bat eskeiniko dio.

Azkenean Aurrerako goiko aretoan, Bazkide bazkaria eginen da. Elkartean bertan inkansableak arituko dira. Bazkaria 2,30etan izanen da.

- **Goizeko 11,30etan ere:** Aizango Baztarlan, "tiro al plato" saioa izango da.
- **Arratsaldeko 6etan:** Ezkonduen entzierroa eta zezenak.
- **Arratsaldeko 7etan:** Ezkonduen ingurutxo.
- **Arratsaldeko 8retan:** Basajaun taldea.
- **Gaueko 12etan:** Basajaun taldea.



PROGRAMA DE FIESTAS PATRONALES 1994

31 DE JULIO - DOMINGO REPARTO DE PROGRAMAS

9 de la mañana: Se repartirán los programas de las fiestas patronales por todo el pueblo. Los jóvenes irán acompañados por (la charanga Artadi, los trikitilaris y los txistularis.

Recordar que se deberá entregar el dinero a aquellos que vayan provistos de caja precintada.

5,30 de la tarde: Concierto en la plaza a cargo de la escuela de acordeones de Leiza.

7,30 de la tarde: Bailables a cargo del grupo HARITZA

11 de la noche: Bailables a cargo del grupo HARITZA.

7 DE AGOSTO - DOMINGO DIA DEL NIÑO

8 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis.

9 de la mañana: Ponneys en la plaza.

10,30 de la mañana: Misa Mayor.

11,30 de la mañana: Partidos de pelota infantiles.

12,30 de la mañana: Juegos para niños.

4 de la tarde: carrera ciclista.

5,30 de la tarde: Ponneys en la plaza.

6,30 de la tarde: Actuación de los dantzaris txikis del AURRERA.

8,30 de la tarde: Calejira con la charanga ARTADI.

9 y 12 de la noche: Bailables con el grupo "MAIXA ITZIAR eta GARBIÑE".

10 DE AGOSTO - MIERCOLES VISPERA

1,30 del mediodía: Comida de los jubilados.

6,30 de la tarde: Inicio de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación calejira y cabezudos a cargo de la txaranga Artadi y los txistularis.

7,30 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo GAUBELA.

11 DE AGOSTO - JUEVES DIA DE SAN TIBURCIO

7,30 de la mañana: Diana a cargo de

los txistularis, los cuales harán el recorrido de todos los años.

Los trikitilaris del pueblo tocarán la diana en Patxi Arrazola y Amazabal.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

10,30 de la mañana: Misa Mayor. La Corporación acudirá acompañada de los Ezpata dantzaris del AURRERA.

12 del mediodía: Actuación de los Ezpata dantzaris del AURRERA. Después partido de pelota.

5,30 de la tarde: Vaquillas en la plaza.

6,30 de la tarde: Bertsoaris en la plaza (LIZASO, MURUA, EGAÑA, AROZENA).

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo GAUBELA.

12 DE AGOSTO - VIERNES

7,30 de la mañana: Los Gaiteros de Leitza recorrerán, La Parte Vieja Manuel Lasarte y Obispo Huarte. Los txistularis harán el recorrido de siempre.

9,30 de la mañana: Encierro y embolado en la plaza.

12 de la mañana: Deporte Rural.

5,30 de la tarde: Embolados.

6,30 de la tarde: Actuación de los dantzaris del AURRERA. A continuación bombas japonesas.

6,30 de la tarde: Partidos de Pelota profesional en el frontón.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo JOSELU ANAIK.

13 DE AGOSTO - SABADO

7,30 de la mañana: Diana con la charanga Artadi, la cual recorrerá los barrios de Amazabal y Patxi arrazola.

Los txistularis: (Sin comentario).

9,30 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

11,30 de la mañana: Quinteto de acordeones, de IRUN en la plaza.

5,30 de la tarde: Emboladas.

7 de la tarde: parque móvil en el campo de fútbol de la escuela.

7 de la tarde: Partidos profesionales en el frontón "Amazabal".

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo AKELARRE.

14 DE AGOSTO - DOMINGO

7,30 de la mañana: Diana. Los trikitilaris del pueblo recorrerán la parte Vieja, Manuel Lasarte y Obispo Huarte. Los txistularis irán a su barrio.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

11,30 de la mañana: Para celebrar el X. Aniversario del equipo de fútbol del AURRERA K.E. Se jugará un partido de 2.ª División B. En el campo del Larbando entre los siguientes equipos IZARRA - BEASAIN.

5 de la tarde: Emboladas.

6,30 de la tarde: Gigantes y gaiteros de Pamplona.

8 de tarde y 12 de la noche: Bailables con el Grupo TRAKETS.

15 DE AGOSTO - LUNES DIA DE LOS CASADOS

7,30 de la mañana: Diana. Los gaiteros recorrerán los barrios de Patxi Arrazola y Amazabal. Los txistularis harán el recorrido de siempre.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados en la plaza.

11 de la mañana: Tiro al plato en el prado de "Aizango Baztarla".

11,30 de la mañana: Partidos de pelota organizados por la escuela de pelota del AURRERA K.E.

ALDAIA - BARRIOLA AGESTA - HERRANDONEA

MARIÑELARENA - CASTRO ESAIN - BERROETA

Después de estos el AURRERA K.E. homenajeará al que ha sido estos últimos años su presidente: CARLOS AGUIRRE, con la insignia de oro del Club.

A las 2,30 de la tarde: Comida de los socios del AURRERA, en la que actuarán LOS INCANSABLES.

6 de la tarde: Encierro de los casados y embolados.

7 de la tarde: Ingurutxo de los casados.

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables con el grupo "BASAJAUN".

OHARRAK

1. INCANSABLES txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen tru-ke, uda-letxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten "ASEGARCE" antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu esku programen bidez, bertan lekua, ordua, e.a. zehaztuz.
6. Zezenetan dabiltzeneri eskapa bidea errezagoa egiteko, barreran gainean inor ez eseritzea eskatuko genuke.
7. AURRERAKO BAZKIDEEN bazkarira joan nahi duenak, txatelak abuztuaren 13a baino ditu, TXOKON lehen hartu beharko ditu, ADURREN.
8. Goizeko 3retan egunero, liga-tzeko ingurutxoia izango dugu.

AVISOS


1. La charanga INCANSABLES animará el pueblo todos los días de mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El Ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad en el Ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo, se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por "ASEGARCE", mediante los correspondientes programas de mano.
6. Para mejora del espectáculo taurino, rogamos al público asistente que no se siente encima de las bareras.
7. Todo el que desee asistir a la comida de los socios de C. D. AURRERA deberá coger el ticket antes del 13 de AGOSTO en los bares TXOKO o ADUR.
9. Todos los días a las 3 de la mañana habrá ingurutxo para que liguemos un poco.



PLAZAOLA



2 - Koldo Fagoaga



3 - Miren Fagoaga



4 - M.^a Jose Astizeri



5 - Jesús M.^a Ariztimuño

BESTE KIROLARI BAT LEITZA GORAIPATZEN



Betidanik, Leitzako herriak kirolari onak eman dizkigu baina nolabait ere beti ohizko kiroltan: herri-kirolak, eskuzko pilotan, etab.

Baina orain guzti hau gaindituz, beste kiroltan lan asko egiten ari den jendea ere badago. Guk, hauetako batekin hitz egin nahi izan dugu.

Bera, tenisean aritzen da, bai bai, ongi irakurri duzute tenisean eta azken denboraldian infantil kategorian aritu da, 14 urteko neska bat da eta bere izena Aina Zabaleta Apezetxea, da.

Hona hemen berarekin izan dugun elkarrizketatxo:

– Kaixo Aina, noiz zinen tenisean eta noiz sotu zitzaizun kirol honetarako afizioa?

Tenisean orain dela 3 urte hasi nitzen. Afizioa berriz txikitatik, Leitzeko plazan raketan jokatzen hasi nitzenetik.

– Non hasi zinen tenisean jokatzen?

Iruñeko “Club Natacion” delakoan hasi nitzen eta oraindik ere bertan jokatzen dut.

– Zenbat aldiz joaten zara Iruñera entrenatzera?

Hasieran, astearte, ostegun eta ostiraletan joaten nitzen eta orain berriz astelehena ezik beste

egun guztietan. Astez entrenatzera eta larunbata eta igandetan partiduak jokatzen.

– Badakigu zuretzat Iruñera ia egunero entrenatzera joatea nahiko zaila dela baina hala ere gustora joaten al zara?

Batzutan nahiko aspergarriak dira entrenamenduak eta egunero Iruñera joatea oso gogorra da, bai neretzat eta baita etxekoentzat ere, baina hala ere pena merezi duela uste dut.

– Non jokatzen dituzu partiduak?

Gehienetan Iruñeko klub guztietan jokatzen ditut baina Valtierra eta Tuteran ere izaten ditut partidurak. Uztailean, Reus-era (Kataluina) joango naiz eta han kanpotarren kontra (joponiarrek, etab.) jokatuko dut.

– Zein da gogoan duzun patiduetatik hobekien jokatu duzuna?

Aurtengo ekainean jokatu nuen kanpeonaterdinaletako partidua. Oso partidu zaila nuen eta azkenean irabazi egin nuen finaletarako pasea lortuz.

– Kirol askotan kirolari nesken kopurua txikiagoa izaten da mutilena baino; tenisean eta batez ere zuen artean nabaritzen al da hau?

Bai, mutilak asko dira eta neska gutxiago. Nik hala ere, bai neska eta baita mutilak ere animatu nahi nituzke.

– Eta elkarrizketa bukatzeko, noizbait pentasatu al duzu entrenamendu eta partidu guztiak alda batetara utziz, tenisa uztea?

Ez, ez. Ez dut tenisa uzteko intentziorik. Oraindik partidu asko jokatu eta ahal bada irabazi nahi ditut. Askok gustatuko litzaidake oso onaz izatera ailegatuko banintz.

Guri ere asko gustatuko litzaiguke tenisean oso gora ailegatuko bazina eta horretan jarrai dezazun nahiko genuke.

Berriz ere, adibide honekin ikus dezakegu zein gogorra eta sufrtua den kirolari izatea; baina konturatu gaitezke ere herri ttiketetan bizitzeak oztopo gehixeago duela ohizko ez diren kirolak praktikatzeko, ez batit dira hirietan bezela kirol mota guztietako eskolak izaten.

Honekin eta bukatzeko esan nahi dugu, horrelako kasuetan ez dela kirolaria bakarrik sakrifikatzen, familia ere hor dagoela.

Beraz, aupa AINARA eta laguntzen duzuen guztiak!!!

Kokoa. –Zer ezkille dire horik?

Martin Ayerre. –Bihar Santiburtzio egune da eta horrengatik ari dire ezkille yotzen.


Kokoa. –Santiburtzio? Ez dut behin ere entzun. Zeruan ez da izanen santu horrenik.

Martin Ayerrek makillez yo eta bota zuen kokoa abere gaisetik lurrera.

PUNTZONA IPURDITIIK SARTU


Kontsejuko tabernan egoten zen lehengo Martikoneko amona Zelestinaren familia. Martin Ayerrek puntzona patu zion alkian Zelestinaren amari. Eseri zen Zelestinaren ama eta ipurditik puntzona sartu zitzi. Saltoka eta karrasika hasi zen eta Martin Ayerrek leihoaz kanpora bota zuen puntzona, inork ikusi gabe. Emakumea ipurditik odola zirrin zuela eta ez zekiten zer gertatu zen. Norbaitek puntzona aurkitu zuen atarian eta orduan igarri zioten zer gertatu zen.

ASTAITZ



Puntzio, goazen diana yotzea,
eta zezenen aurrean ibiltzea.
Gero tripotxa leher yatea,
Mañeruko ardoa edatea...

BASILIO BARBEROA



Leitzeko etxe gehienetan izanen da Basilio Ranzek ateratako erretratoren bat edo beste. Ezkontzak zirela edo familiako erretratoren bat atera behar zela Basilio beti prest makina zintzilik hartu eta noranahi joateko. Pestetan ere ez zen lo egoten. Apustulariei, zezenetan zebiltzane, ingurutxoari eta eskatzen zion guziari ateratzen zion erretratoa. Honetaz gainera Basilio aritzen zen hile moztan, bizar kentzen, emakumei permanentea egiten, kinielak seilatzan, bizikletak konpontzen eta saltzen zituen bizikletak, motoak, labadorak eta butanozko estufak. Butanozko sukaldeak hasi zirenean bera zen aurreneko bonbona zabaltzailea. Orain dela urte batzuk hile moztetik erretiratu zen baina segitzen zuen kinielak eta loteria seilatzan. Aurten, hirurogei ta hamabost urterekin, lan hau ere utzi du eta orain patxadan bizi da.

–Nongoak ziren zure gurasoak.

–Nere gurasoak Soriakoak ziren. Atte Radonakoa eta ama Alcubilla-koa. Attek Plazaolako trenbidean egiten zuen lana eta Irurtzunen jarri ziren bizitzen. Ni jaio nintzen 1919. urtean. Baina han denbora gutxi egin genuen. 1920. urtean Leitzera etorri ginen bizitzera.

–Nola ikasi zenituen ofizioak?

–Ni barberozkoan eta fotografia ikasten hasi nintzen Pako barberoarekin, Irategiko herrin. Pako Juantorena Iruñekoa zen berez baina Gipuzkoan hazia. Gerra hasi zenean ama eta arrebak Lasarten zituen eta hemengo tropak Tolosan sartu zirenean haiek ihesi joan ziren. Gero Donostia hartu zutenean Pako Lasartera joan zen bizitzera, beldur baitzen hango etxea kenduko ote zioten. Ordun ni hemen nere konture hasi nintzen Pakok zeuken etxean. Gero etxe hau Ixidora Larrazek erosi zuen eta ni lantokirik gabe gelditu nintzen. Ordun joan nintzen Pinterdinerara. Etxe hau Oxepa Baldarena zen eta egitazko izena zuen Txatalingonea eta Oxepari ez zituzion gustatzen “Pinterdinea” deitzea. Errepublikara garaietan etxe hontan izandu zen batzokie eta itxia zegoen. Nik lantokia jartzeko baimena eskatu nuen eta eman egin zidaten.

–Gizasemeak apaintzez aparte zu omen zinen hemengo emakumeen “pelukera”...

–Hemengoak bakarrik ez. Honera etortzen ziren Berastegi, Goizueta, Ezkurra-Donztebe, Arraras eta Beruete emakumeak. Ni joaten nintzen Areso, Gorriti eta Lekunberrira. Azkeneko honetan Barriolaren hotelean eta Aiestaranen hotelean egiten nuen lana. Arrarastik eta beste herrietatik oinez etortzen ziren emakumeak Leitzera permanentea egitera. 1945-ko hilbeltzaren 4ean bi neska etorri ziren oinez Beruete Leitzera permanentea egitera. Goizeko hamarretan ailegatu ziren honera eta eguerdiko ordubatan elurra leher eraso zion. Atsaldeko laueta atera ziren hemendik eta esan nioan hemen gelditzeko, baina anaiak Apeztegira ateratzekoak zituztela eta joan ziren. Hurrengo egunean Leitzeko plazan 90 centimetro zen elurra.

Deitu nuen Beruetera eta ailegatu zirela esan zidaten eta pozik gelditu nintzen. Bulada batean ni bakarrik aritu nintzen emakumeak apaintzen, Manolita Erbiti hasi zen arte.

–Berrogei ta hamar urte egin dituzu fotografiak ateratzen...

–Ni hasi nintzenean filmea ez zen izaten zintetan, ordun plakak ziren eta bakoitzak fotografi bat izaten zuen. Fotografi asko nituen. Zure osabei karnabaletan aterak ere ba nituen. Baina orain familiakoz aparte ez dut bakarrik ere. Bi zapata kaja klitxez beteak nituen eta Lasarteko Iñakiri eman nizekion.

–Konta zaiguzu ateraldi xeble edo pasadizoren bat.

–Anekdotak eta pasadizo asko ditut. ¿Zer kontatuko dizut ba? Abereak ere nik apaintzen nituela. Tratalariak ekartzen zituzten kontrabandoz zaldi eta behorrak eta nik hilea moztu eta tintatu egiten nien, gero saltzekoan itxura hobea izateko.

ATERALDIAK

TRESMALLEZ ARRANTZAN

Igande batean Leitzeko goardiazibilak Goizuetara eramantarazi zituzten. Axintxio ohartu zen eta bere lagunei esan zien orduntxe zela multarik sartu gabe arrantzan ibiltzeko modua eta Olaberriko presara joan behar zutela. Hasi ziren arrantzan tresmallez eta amorrai bat arrapatzen zutenean Axintxiok hartu buztanetik zintzilik eta kamioan paseoan zebiltzen goardiazibilen atsoei erakusten zien "mira esto" esanez.

Astaitzagako Benardo han zegoen presa bazterrean pazkoaz egin eta trajez jantzia. "Neri ur ahundik beldur ematten zeidek", zion Benardok eta Axintxiok: "ez, ez, hi ez sartu. Gu ibilliko gattok". Eta Benardo lasai zegoen bestek harrapatzen zituen amorraiei begira. Halako batean bulkatu eta plust! putzurik haundienera bota zuen Axintxiok Benardo. Altza adarrei ekin eta izugarriak ikusita atera zen lehorrera. Gero Olaberrian amorraiak prejitu, ederki gosalduta eta etorri zen etxera aldatzera.

ARGIEI BIZTU ITZALIA

Olaberrie zen Leitzen azkena gelditutako ola. 1914. urteko gerraten oraindik ari zen lanean Toledoko arma fabrikarentzat. Baita ere bazituzten sutegia, zerra, gaseosa eta sifon fabrika, errota eta zentrala. Orain banketa fabrika dute.

Axintxiok Baleztenaren etxeko neskame Ursula zuen andregai. Igande ilunabarrean bazebiltzen paseoan eta Axintxiok esan zion ez zegoela ongi eta etxera joan behar zuela. Andregaiak ez zueta sinisten. Baietz Axintxiok, gaizki sumatzen zuela bere burua. Baina Ursulak ez sinisten hura hain goiz etxera joanen zenik. Ordun Axintxiok esan zion etxera joaten zenean argiei biztu itzalia bat eginen ziela.

Andregai utzi eta berehalaxe joan zen

etxera, herriko argiei biztu itzalia egin zentraletik eta goizaldera arte Aresora juergara!

EZ AL DITOK OHARTUKO!

Aresoko Sagastinean harro harro eginda zebiltzen Leitzar mordoska: Axintxio, Pello Inaziobarunena, Oxantonlo Eztabenekoa eta beste batzuk. Axintxio lizar makil haundil batekin zebilen.

Gaurko egunean tabernetan argiz eta soinuz mozkortzen zara edariz hainatsu. Nonnahi dago baffle eta argi misteriosua. Baina garai hartan ez. Orduan etzen argi psikodelikorik. Sagastineko tabernan bonbila bat bakarra zuten.

Axintxiok lizar makilaz jota hautsi zuen bonbila eta denak ilunbetan. Hala egiten zuen Axintxiok: "Ez al dittok ohartuko! Ez dittok ohartuko eh?"

Gero joan zen Axintxio ostatuko nagusi Josepotzorengana:

Axintxio. -Zenbat da bonbilarena?

Josepotzo. -Ze, behin etorriko eta ordun kobratu? Ez, ez, ez dizuet kobratuko.

Axintxio. -Esan, esan zenbat den.

Josepotzo. -Sei sueldo.

Axintxio. -Ze, behin etorriko eta ordun kobratu? Nahiago dugu batere pagatu gabe yoan.

Eta Leitzar guziak aterata martxa!

BEEEEEEEE..!

Aresotik Leitzera abiatu ziren eta balentriren bat egin behar bada etxera etortzerako. Erreka bazterrean tronko haundi bat ikusi zuten eta huraxe bota behar zutela errekarara. Ekin zioten eta buelta ematerakoan Axintxio adar kordots batek gerritik hartu, aurrekaldera bota eta azpian irago. Korderik gabe gelditu zen lurrean zapaldua. Bere lagunek hartu

zuten bizkartean eta arnasik ez Axintxiok. Bazekarten eta bizi zen seinalerik ez. Osotara beldurtu ziren marmarian: "hil zitziuk Axintxio. Orain etxen zer esan behar diu? Nahiz hezurak hautsi bizirik gelditu balitz sikirare. Ojala egur alu hori ekusi ez bagiño. Infernuko etsayen tentazioa!" Hontan iritsi ziren "Akerra" izengutxia zuen baten etxe ondora eta denak hiltzat zeukaten Axintxiok:


Beeeeeeee...!

"Bizi dok, bizi dok" eta orduntxe poztu ziren. Etxera ekarri eta ohean sartu zuten. Bere amak larremiluz eta intsus lorez egindako enplastoak jarri eta egun batzun buruan sendatu zen.

Hilzorian ere hark bere griña berrenean!

BERE DENBORAN JO ZUEN PIEZRIK HOBENA

Lontxok gogozko zuen akordeona jotzea baina ez zuen arte haundirik. Hala holako akordeoilaria zen. Beti "ia, ia, ia, ia..." ari bai baina trakets. Ez zen berehata iritsiko Zelaiaren parera!



Igande arrats batean Zotzikoren tabernako eskailera tranpan ari zen akordeona jotzen Lontxo eta bera ohartzen ez zela Axintxiok erantsi zion soka luze bat alkiaren hankari. Gero tabernaren beste muturretik zituenetan tira sokari eta Lontxo eskaierak behera dinbuluke, tripapean akordeona zuela "aga, aga, aga, aga..." eginez. Ondoren Axintxiok esaten zuen: "bere denboran yo zien piezarik hobena ordun yo zien!"

GOARDIAZIBILAK PRASAZ ERRE

Negua zen eta hotz ikaragarriak egiten zituen. Mendieta antzigarra zegoen. Goardiazibilak egunero Olaberriko atarian ibiltzen ziren bijilantzian. Kapa ederrak zituzten baina hala ere osotara hozten ziren eta Olaberrikoak gasaltzera joaten zirenean sute-gira sartzen ziren berotzera. Sutegiko prasaran aurrean oso gustora egoten ziren.

Egun batean Axintxiok gasaltzera joaterako sutegiko hauspoa goratuta utzi zuen. Goardiazibilak beti bezala jarri ziren berotzen eta Axintxio izkutuko bazter batzuk barrena etorri, hauspoa dapla! bat batean jeitsi eta prasa guzik goardiazibiletara. Sumendiaren

erupzioa ematen zuen sutegiak. Kapak ilaun bihurtu zitzaizkien eta eskuetan, arpegian eta korputzean nonahi zituzten erreak. Goardiazibil bat erori eta burnia tenplatzeko askan sartu zen.

Axintxio etorritako bidetik azkar itzuli zen etxera. Goardiazibilak ere bai geroxeago. Ez ziren asko gauza. Erdi negarrean ziren Olaberriko ateari jo zituztenean. Axintxioren ama atera zen.

Gaordiazibelek
-¿Dónde está Axintxio?

Amak. -Está almorzando.

Goardiazibilek. –Dígale que salga.

Eta Axintxio eskuan tenedorea zuela atera zen.

Goardiazibilek. –¿Tú has sido, verdad?

Axintxio. –Si yo estaba almorzando...

Goardiazibilek orduan ez ziren gauza deus egiteko eta ahal zute~ bezala joan ziren etxera. Gero Axintxio deitzen zuten kuartelera baina Axintxiorik ez etortzen. Hiru hilabeta bota zituen herrira etorri gabe. Goardiazibilei ahaztu zitzairen arte.

Gehio ez omen zen sartu goardiazibilik Olaberriko sutegian.

ESPARTZINA ERREKA ZULORA

Ezcurmendin ari ziren tahean, Hollingo errekatik bertan. Arrantxeroa oso triste zegoen. Bere arrebak haurra izan zuen ezkon-gaietan eta maisterrak zirenez etxetik bidatiko ote zituzten beldur.

Lantokiko lagunek pentsatu zuten: “bart ere arrantxeroa negarrez egondu dok. Etzeok bere onetan motit hori. Zerbait’e in beharko diu hori pozteko.” Eta gogoratu zitzaizen iluntzean denak ingurutxoan sartu behar zutela txabolara. Zotzezko ziztu itxurakoa egin zuten eta atabaletako ardangaia. Joan ziren txabol atarira sokadantzan eta belentzikuak egiterakoan Martiuxceri espartzina lohiean sartuta gelditu. Martiuxe makurtu zen espartzina hartzera baina Axintxiok atzetik esan zion: “sei zak, sei zak, nek hartuko diit espartziñe.” Axintxiok espartzina hartu eta aire Hollingo erreka zulora!

¿HAY QUE PAGAR ALGO?

Trastekeriren bat egin zuen Axintxiok eta goardiazibilak mundi munduko egurra eman zioten kuartelean. Eta Axintxiok:

–¿Hay que firmar el recibo?

–¿Recibo de qué?

–De la paliza que habéis dado.

Berriz atzera sekulan baino egur haundia-
goa eman zioten goardazitak. Eta Axintxiok
atetik ateratzean:

–¿Hay que pagar algo?

BEHIA PERIODIKOA LEITZEN

Axintxiok erosi zuen behia parra egiteko. Zortzikoren ikuiluan eduki zuen. Sareetan periodikoa jartzen zion eta behia periodikoari usaika hasten zenean esaten zuen: “hara, beye periodikoa leitzen ari dok.” Igandeetan ateratzen zuen paseora eta lapitze behiaren buztanpeko txokoa uzten zuen. Norbaitek



zerbait esaten zionean buztanpetik tapitze hartu eta hasten zen eskribitzen.

KARA ERRETTZETAREN ORDEZ

Botikarioa bigarren pisuan bizi zen eta norbaitek tinbrea jotzen zuenean saskitxoa botatzen zuen sokatik zintzilik. Errezeta saskitxoan hartu eta igotzen zuen lehiora; gero saskitxoan botika bidaltzen zuen behera.

Gau batean Axintxio eta Matias joan ziren eta jo zuten tinbrea. Botikarioak beti bezala bota zuen saskitxoa eta sartu zuten “errezeta”. Igo zuen gora eta paketea ikustean pentsatu zuen ziztorra edo urdaiazpikoa izanen zela. Ireki zuen eta botikarioa zorabila egin eta lurrera!

ASTAITZ



PLAZAOLA

Leitzako Udalak, Jose Miguel Elozegi Aldasorori bere esker beroenak eman behar dizkio.

Elozegi jaunak izugarrizko lana egin du, Leitzako udalerrri guztiaren maketa bat eginez. Hor daude gure herriko mendi, ibai, bide eta baserri guztiak. Bere lanak aukera ematen digu gure toponimia edo baso bakoitzean dauden zuhaitz mota desberdinak ezagutzeko.

Horregatik maketa hau Udaletxearen Bilera Aretoan jarri dugu, hemendik aurrera leitzarrak artelan hau gustora ikusi dezaten.

Korporazio guztiaren izenean, gure eskerrak Elozegi jauna!



Aresoarteko Brijidak utzitako argazkiaren kopia. Joan den mende bukaera eta honen hasiera bitartekoa (1898-1902) da. Baina segurantziz ezin esan zein urtetakoa. Hor ageri diren guztiak ezagutu ezkerro, atera liteke xuxenago noizkoa den. Gazteluneko atauarrean aterea da. Joxemiel «Landa» ote den behean ezkerreko ertzekoa, eta eskuineko ertzekoa berriz Pello zena Mikonekoa. Denak ezagutzen, baduzu pestatako entretenimientua. Galdetu amonari, osabari, amautxiari,... eta argazki honi buruzko datu zehatzagorik ikasten baduzu, edo kopiarik nahiko bazenu, deitu telefono honetara: (510435). Bale!

“IRATXOAK” TALDEKO PARTAIDEEK ASMATUTAKO BI BERTSO

GAIA: Jokuak

Badakizue larunbatero
jokuak plazan daudela
orain eskola bukatu da ta
astero hemen gaudela
astelehena, asteazkena
ostirala ere dela
joku asko egin behar ditugu
eskulanekin batera.

Udan etxean gelditzen ba za
hasiko zara aspertzen
hori dela eta hasi beharko
duzu honera etortzen
hemen aritzen gara jokuak
eskulanak ta ikasten
horrela aritzen gara beti
euskeraz ongi pasatzen.

*Izaskun
Berean*

*Laura
Zabalza*

URRIRAKO PRESTATZEN HASI...!!

Lehenengo aldiz gauzak ongi ateratzen direnean, higarren aldiz egiteko "aitzaki" bihurtzen da lehengoa, nahiz eta jakin arrisku izan aurrekoaren hainbeste espero denean.

Ah! eta galdetuko duzue. Zertaz ari garen, ezta? Ba baserritarren egunari buruz ari gara. Aurretik esana baduguere espero gabeko arrakasta lortu zen gure ustez joan zen urtean. Askorentzat labur xamarra, goizetik bakarrik

izatearekin. Dena den bertan ikusi genuen, parte hartuzutenen lanek zer balio handia zuten, eskertzekoa benetan. Bestaldetik "pestaren" berri zekitenak baino lehen dabi-zikoan ausartu ez ziren bueltaka ikus zitezkeen aurtengoa prestatzen, noski...!

Aditu duzuen bezala aurten ere zer ikusi eta zer erakutsi izanen dugu. Bertan barazki eta animaliak izanen dira ikusgai.

Iaz berandu xamar egin zelakoan gaude eta horregatik aurten hamabost egunez aurreratu dugu, hots; Urriaren 16rako.

Honez gero baserritan behinik behin gonbidapena jaso izan duzue. Hala ere eta egiten direnak hobetu daitezkelakoan gaudelako, aurten aipatutako egunak, hamabost egunetako etakusketari emanen dio hasera.

Ez noski barazki eta animaliena! Aski dute hauek egun bat irautearekin. Nahiko lan ala ere...

Beno zerena bada? Ba... hori, seguro lehendik ere aditua duzuela,... tresna zaharrena. Tresna zaharren erakusketa bai. Aspaldi baserrian edo etxean gorderik, zenbait kasuetan hautsez beterik, nahiz eta ez erabili, garbi eta txukun beste kasu askotan.

Kontutan hartu behar dugu gure bizimodua aldatuz doala eta lehen beharrezkoak ziren tresnak eta elementu, eguneroko bizitzan erabiltzen ziren traste hoiek, aldatuak izan dira, batzuk ahaztu xamarra izan arren, gogoan izanen dituzue, beste askok berriz, sekulan ikusi gabeak, zertarako balio zuten jakin gabe edota izena urteetako denboran galdurik edota aldaturik... Beno horixe da bagure asmoa, toki esberdinetatik edozein tresna erakusgaijarri, izena eta nongoa den azalduz. Denetarik jaso daiteke, orain dela ehun urtetako ohea edo ilea mozteko erabiltzen ziren buxiak. Lurra iraultzeko laia edota esneabiltzeko kaikua... guk orain idea bota dugu baina zuenlaguntza ezinbestekoa da. Zer kondiziotan eginen den etxetara bidali den kartan agertzen den bezala herrian barne zabalduko dire orriak eta irratiz ere adieraziko da. Hala ere bakarren batek zuzenen hitzegin nahi badu, Aurrerako Batzordera edo Kultur Taldeko partaideenganajo dezala. Enbidoa botata dago, saia gaitezen denen artean erantzuten. Apostu politta, ezta !!



AURRERA K.E.



LEITZAKO KULTUR TALDEA

MANOLO GUAPO GUAPO

Gaur ere, ostiralero bezala, lanera Joan naiz bere bila.
 Umeak koxkortuxeak daude eta ikastolan gelditzen dira bazkaltzen.
 Orain sekulan baino denbora gehiago daukat niretzat.
 Gaur ere garbialdi ederra eman diot komunari.

Oso goiz joan naiz Caja de Ahorrosera eta pare-parean ongi aparkatzeko beta ere izan dut. Kotxetik atera eta imajinatzen hasi naiz Manolo aterako dela Cajatik guapo guapo nik jositako atorra arrastodun berriarekin, maletina esku batean duela eta ni ikustean aurpegia alai-tuko zaiola eta arin-arin etorriko zaidala ondora, musu bat emango didala eta berriren bat kontatzen didan bitartean poz-pozik joanen garena etxera, bazkalduko dugula eta.....

Hirurak jo dute, Aurrezki Kutxak itxi ditu bere ateak; gizon dotore bat atera da, kotxe beltz dizdiratsu batera hurbildu da, emakumeari buruarekin keinu eginez kotxean sartu eta azal zuriko emakumeak kotxea martxan jarri du ixilik.

- Ai, Mari, sekulako nahigabea daukatis!
- Zer ba, laztana?
- Gaur neska berria etorri da bulegora hilabeteko kontratoarekin.
- Eta? Zer du ba zu nahigabetzeko?
- Oso gaztea da eta nabari du azkarra dela lanerako baina oso itxura traketsa ekarri du.
- Zer zeukan ba?
- Orrezatu gabe, kamiseta zarpail bat eta koloretako mediak eta ez dakit ba, niri berdin zait baina nagusiak errixtan eman dio. Alu horrek!
- Errixtan itxuragatik?
- Bai, emakumea, ba! Neska gaixoa dena harrituta joan da. Gainera esan dio bihar planta hobea ekartzeko.
- Eta zuk zer uste duzu?
- Jolin! Nik esan diot inportanteena lanean gustora eta ongi aritzea dela eta niregatik nahi duen bezala etortzeko, berdin zaidala, baina... Ai ene!

Zer dugu bazkaltzeko?

.....

Etxean sartu dira.

Manolo zuzenean mahaian eseri da.

Bazkaldu dute telebistaren konpainiarekin.

Setan Mari umeen bila joan da ikastolara.

Etxera itzuli denean ohartxo bat aurkitu du sukaldeko mahai gainean:

““ MARI, gimnasia joan naiz izerdialdi bat botatzera, ea haserrea joaten zaidan.
 AA! Lehen ahaztu egin zait esatea. Biharko plantxatu atorra grisa, gaurkoa ez bait zaio asko gustatu nagusiari.””

Lala
#

Mmmmm, BEÑIN-BORDA!!

Nere oroitzapenak neurrigabeko zero urdin hartan galtzen dira; bere hodei txuri eta gris-
sez, eta tontorrean bukatutako mendiez apainduriko zero urdina.

Etxearen parean belar soro luze, zabal eta orlegietan zaldi bizkorrak lauoiankatuz ikus
zitezkeen. Zaldi marroi, txuri, beltz eta "Purasangreren" bat hauteman zitekeen.

Kamioa gurutzatuz, nere haurtzaroa igaro nueneko etxeari sarrera ematen zion ateka zego-
en.

Eskubira, ardi baketsuak beraien marraka luzeeekin.

Atzekaldean, zuhaitz izugarriak, adar sendotakoak, loretsuak eta hoste ederrekoak,
zelaian apaingarri eta txori kantarien kabi ziren. Baita erleuntzi saila ere, erle dantzariekin.

Ezkerretara belatsoak; bere lore hori, txuri, more, goriak, zorientasunaren islada. Kolore
sorta horrek apaindu egiten zuen berez toki bikaina zena. Behi sendoak marruka eta zerri ilet-
suak ezkurra pazkan.

Azkenik, hoberena: nere etxebizitza epel eta goxoa.

Behoko solairuan ikuilu ugaria, egurrezko atean zakur zaindaria zuelarik. Iluntzean ikui-
lu hau aziendaren gordeleku bilakatzen zen, biharamuna ongi has zezaten.


Zubi luze eta altu batek ematen zion sarrera pisuari. Hemen katu jostariak lagun atseginak
ziren bakardade uneetan, hatzaparkatzen gintuzten arren. Logela ireki eta zabalak, ohe erosoe-
kin. Sukaldea beti beroa, lurreko sua eta txapa gogorrari esker.

Goiko solairuan berriz, alde batetik ganbara irekia, babarrun gorri eta txuriak bildu eta
lurrean sakabanaturik; arto gozoa, gazta borobilak, txistor luzeak eta urdaiazpiko haragitsuak
zintzilik. Bestalde, belar lehorra, aziendaren elikagai.

Janari guzti hauekin igarotzen genuen negu bortitza.

Teilatu zabalean bi tximinik neguko ke grisaxka ateratzen zuten, eta sutondoko berotasu-
naren inguruan bildurik geundela adierazten zuten.

Leku bekaizlea ezta? Ba, horrelako leku zoragarri batetan bizitu nintzen. Gaur berreskura-
tu ezina suertatzen zaidan leku ahaztezina. Izan ere, paradisu harengatik eraginda bizi ditut



IHES EGINDAKO JUDIOAK LEITZEN

Judioak beren lurraldetik sakabanatu zituztenez geroztik pixkanaka pixkanaka mundu guzira zabaldu ziren. Nafarroan ere ba ziren hiru mila eta bostheun judio XV. Mendearen bukaeran. Iruñean, Lizarran, Tudelan eta beste herri batzuetan ba ziren juderiak. Batzuk aberaratsak ziren. Adibidez hor dugu Tudelako Ezmel de Ablitas famatua.

Beren erlijioari tinko eusten ziotelako edo dirua tarteko zelako ezin ikusiak sortu ziren eta Europako lurralde batzuetatik bidali egin zituzten. Espainiatik 1492. Urtean bidali zituzten eta hauetako batzuk Nafarroan aurkitu zuten babesa. Baina Nafarroatik ere bidali egin zituzten 1498. urtean, Fernando Errege Katolikoaren eraginaren bitartez.

Gizaldietan zehar pertsekuzio galantak jasan zituzten judioak baina zitalkeririk haundienak Bigarren Mundu Gerrakoan (1939-1945) sofritu zituzten. Haurrak, sasobekoak eta zaharrak harrapatu ahala garbitzen zituzten. Hileak tente jartzen dira kontzentrazio kanpoetan egin zituztenak irakurtzean.

Eta munduak ematen dituen bueltak! Gaur judioak gauza berdintsuak egiten ari dira palestinare. Baina guk orduko kontuak jakin nahi ditugu eta hona zer gertatzen zen Treblinkan:

TREBLINKA

Judioz trena bete eta Treblinkako kontzentrazio kanpora eramaten zituzten. Ekialdea kolonizatu behar zutela esanez sar arazten zituzten trenera. Treblinkan gezurrezko estazioa zeukaten: paretean lehio pintatuak, zurezko orratzezko erloju faltsoa... Ailegatzen zirenean emakumeak alde batera eta gizasemeak bestera berezten zituzten. Larrugorritan jarri, arropak leku jakinetan utzi arazi eta dutxatzeko aitzakian gas kamaratan sar arazten zituzten. "Ciclón B" izena duen gasez ordu erdi batez hiltzen zituzten kamaran sartutakoak. Egunean hamasei mila judio hiltzen zituzten. Eta hori Treblinkan bakarrik. Kontutan hartu bazirela kontzentrazio kanpo gehiago: Auschwitz, Birkenau, Dachau, Neu-Bremm... Guzira sei milioi judio hil zituzten.

Kontzentrazio kanpo hontako lanak egiteko judiorik bizkorrenak aukeratzen zituzten. Eta bai al dakizue aukeraketa nola egiten zuten? Endenaka jartzen zituzten eta agintzen zioten: Artisauak direnak eman dezatela urrats bat aurrera. Eta urratsa ematen zutenak hil egiten zituzten. Gero: yiddish hitz egiten dutenak urrats bat aurrera. Hauek ere hil egiten zituzten. Gelditzen ziren jipoi ikaragarria ematen zioten kulataz eta latigoz eta erortzen zirenak hil egiten zituzten. Zutik gelditzen zirenak lanerako hartzen zituzten.

Egun batean trenkada bat judio iritxi zen Treblinkara eta mutiko batek han ikusten du bere aita lanean ari dela eta esaten dio pozez txoratzen: "esaten nuen nik aurkituko zintudala, aita". Handik piska batera han sartu zuten gas kamaratara eta aitak deus ere ezin egin!

Garai hartan alemanen mende zeuden lurraldetako ifernu gorri hortatik ahal zutenak ihes egin zuten. Alde egindako batzuk etorri ziren Elizondora, Aresora eta Leitzaera. Ikus dezagun zer dioten leitzar batzuk.

DENDARINEA

1994-ko martxoak 6, igandea. Dendarinean ate yoka ari naiz.

- Atsaldeon, Maria Luisa.
- Berdin. Zer zabiltze?
- Hementxe. Judioak Leitzen egondu zireneko kontuk yakin nahi nituzke.
- Iyo zattea gora. Oraintxe etorri ga paseotik eta oraindik aldatu gabe nago.
- Ez naiz ni harrituko.

Sarreran, ezkaratzean, lurrezko ontzi haundi bat lehenago olioia edukitzen zutena eta kutxaren gainean bi brasero eta zurginek kola urtzeko erabiltzen zituzten kobrezko ontziak. Eskailera tranpan kobrezko pertza haundi bat eta eskailburuan paretako erlojua bere pendulo haundiarekin.

Sukaldean Periko, bere emazte Maria Luisa eta Paulina telebisioa ikusten. Behiko suan bi suburni eta latzetik zintzilik kobrezko pertza. Tximiniko apalean eta paretatik zintzilik kobrezko ontziak eta bi apal liburuz beteak

- Zenbat judio etorri ziren Leitzera?

- Askotik etorri ziren. Batzuk yoan eta besteak etorri hola ibiltzen ziren. Hemen aste bat edo hamabost egun egotten ziren. Gero yoaten ziren Uberuagako balneariora, Bizkaiara. Beste batzuk yoan ziren Cadize eta handik Tel-Aviv-era.

Azkeneko txandak sei hilabete egin zituen hemen. Hauetan ba ziren bi anai ikusi zituztenak beren gurasoak kamionetan sartzen gas kamaratara eramateko. Frantzia eta Alemaniako judioak ziren gehienak. Bat rusoa ere ba zen. Beste bat, Jean Marie, belga. Hau Esteban Aresokoak pasatu zuen Frantziatik honeraino kontrabandoz. Batzuk umeak ere ba zituzten. Musunen, "Fonda Gogorza"n egondu ziren. Denentzat tokirik ez eta zortzik Errementaneko herrin egiten zuten loa. Asteko berrogei ta bost pezta zuten paga. Seittun zigarroak erosten zittuen eta larunbaterako aitzen zittuen diru guzik. Nonbait ere estranjeretik pagatzen zioten. Goizero galtza motxak yantzi eta plazan egiten zuten gimnasie. Futbolean ere aritzen ziren. Poliziko komisario bat beti izaten zuten hemen zaintzeko. Ba ziren medikuk, ingenieroak... Bat sastreia ere ba zen. Tuteneko herrire Presenengana, yoaten zen yostera. Errementaneko herrin egiten zituzten beren errezoak. Sinagoga bezela izanen zuen etxe hau. Baño denak ez ziren yoaten. Agorren urte berri edo zerbatte badue pesta eta Musunen zerbatte egin. Leitzeko mojetako madre superiora "Madre Noeli"k lagundu zioten. Erdaraz erakusten aritzen zen. Zenbat matte zuten! Mojak erosi zuten pianoa eta judioak iyo zioten eta moskatela eman eta denak harrotute bialdu zituzten.

Aliatuek Paris hartu zutenean hure pesta egin zuten! Ixidoran dendan txanpan eman ziguen.

Geroztik etorri izandu dire gu ikustera eta kartak eskribitu ere bai Tel-Aviv-etik.

Erretratoa ere ba dugu. Hor ate ondoan dagoen rubio hori Martingartzineko Doloixekin ibiltzen zen.

Egun batean manifestazioa egin zuten Leitzen, ez dakit zergatik. Kantari ibili ziren herri guzitik. Guk ez giñun entenditzen zer esaten zuten. Hori egin zutelako hiru egun arrestatuk egondu ziren etxetik atera gabe.

ERRETRATOA

Dendarinekoak eman didate erretrato hau. Berrogei ta hamar urteren buruan gehien izenak gogoan dauzkate. Hona hemen eman dizkidaten izenak (goitik behera eta ezkerretik eskuñera):

Aurreneko fila:

1. Gerard
2. Joe
3. JUANITO GOGORZA, Fondakoa.
4. Gerard
5. Dedé

Bigarren fila:

3. Lucien
4. Juan Luis
5. Rudy
6. Leo

7. Bernard

8. Marcel

Hirugarren fila:

1. José
3. Hernesto
7. Salomón

Laugarren fila:

1. Bob
2. Apel (dentista)
3. Arman

Bostgarren fila:

1. Alberto

Leihoan daudenak, Fondako neskameak:

Josefa Noain, Altzateko bordakoa

Beronika, Arritxeneko bordakoa



ASTAITZAGAKO MIKELA

Judioak hemendik yoan ondoren ni erosketak egitea yoan nintzen Musungo herrire eta Kalixtak esan zen: "Zuri gustatzen zaizkitzo holako gauzek eta tori judioak hemen utzitako liburu hau". Lopez Mendizabal 'dar Ixaka'ren "ErderaEuzkera, Euzkera-Erdera" hiztegia zen liburu hori eta hementxe dauket etxen gordea. Hontan ikusten da judioak euskaraz ikasteko arreta ba zutela.

PRESEN ARRIBILLAGA

Gure etxera yostera yoaten zena sastrea zen. Belgikakoa zen eta bere atte "campo de concentración" batean zuen. Arreba bat modista zuen. Gero Cadize yoan zen eta handik eskribitu zen karta esanez hemengo neskak hobeak giñela hangoak baño. Beste bi baziren judioakin baten etorrik baño ez ziren judioak, katolikoak ziren. Uste dot polakoak zirela. Hok kontatzen zuen nola ikusi zituzten alemanak judioan umeek bi hanketatik hartu eta paretaren kontra yoka hiltzen. Beste emakume bat kubana zen. Alemanak zakurrek bota eta gorrik ikusi omen zituzten frontera iragotzen. Kubanan atzetik zetorren emakume bat zakurrek harrapatu eta urratu zuten. Isabara allatu zirenean "aquellos era el cielo" esaten zuten. Fondan denentzat lekurik ez eta batzuk Musun zaharrean egondu ziren eta arkakosoakin kejatzen ziren. Esaten zuten pistolaz hasi behar zutela arkakosoak hiltzen. Gero Joanen etxera yoan ziren eta esaten zuten Joanen amak zeñen ongi zaintzen ziu. Rabinoa ere bazuten eta Errementaneko herri-re biltzen ziren beren relijioko gauzak egittera.

RAZIONAMENTU GARAIEKO LEITZE

Orain dela berrogei ta hamar urte alemanen mende zeuden lurraldetatik ihes egindako judioak zeuden Leitzen. Eta nolako Leitze aurkitu zuten? Artadiz inguratue. Landa, Mendigorri, Marijuanzulo eta orain txantreak dauden Leku hori dena artadie zen eta bordak ere alor galantak zituzten. Artoa, garie, banabarra, arbie eta berdea ziren gehiena egiten zirenak. Nork edo nork zikirioa eta zalkea egiten zituen lastotarako. Allorbea ere bai batzuk azindan yanaritarako, baina esnari gusto txarra ematen zion. Liñoa ere asko egiten zen, baina hori lehentxeago, gerra aurretik. Etxe askotan ikus zitezkeen liñozko harie egiteko tresnak: liñarrie, kabik, garbak, azkorra, txarrantxe, subatsa, ardatza, liñaye eta alkaye. Liñaputzuak non-nahi ziren. Hauek ziren garai hartako pistzinak. Baina ez bikinie yantzi, busti aldi bat hartu, krema eman eta brontzeatzeko. Ez, ez, urputzu hauek liñoa beratzeko ziren. Liñoa hari bihurtzen zutenean Lekunberriko Anatxoneko Oxaakin ehuntzaleak eramaten zuen eta ehunezko ohial ederrak ekartzen zituen bueltan.

Goizean yeki, gosaldu, atarire atera eta zer ekusten zuten judioak? Paskual saskie burutik hartu eta ittaye eskuetan zuela arbi ateratzea edo berdaittea. Zinko ardiei yanarazten eta kejo. Bai, "muturgorri" txerrokikin eta "sasiko" asayekin eta sangatu egin behar. Oxantonio ekullun beyek yezen. "Adartxabala" ostikolarie eta harekin komedik. Umatu berrie eta karenik ezin egin eta oritze moztuko ote zitzion beldur. Morroie bialdu zuen albaiteroarengana eta lehiotik eman zizkion erremedioak: "kafea emaiozu bero beroa, sofriahalguzikoa, eta kopa bat anixetu ere bai." Botikarioa han zegoen lehioan denak entzuten eta morroiari esan zion: "zu, purue ere emaiozu." Maria gazta egin eta gazurriak berotzen abatza aurrekaldean zuela. Amona berriz beyek noiz yetziko zai esne erreberoa edateko. Tomax anoa bizkarrean zuela

Leitzelarre estu estu. Bai, hara yoan axurik amomatu, artiolak bildu eta yetzi beharrak. "Eta nonbaitor azerik yan ezpadik gure "adaxkarie". Azerikutxe patu nien Yoandegiko Ospelen baño ez yakin sartu den". Behorak zelaietara hasi dire yesten eta

Oxemi eltzaborra yotzen ari da. Laugañen alde egin dute alorpean barrena. Ez dire berriz haise etorriko. Paulo itzai dabil gaur, "aida, oso eta esti". Aurrena Ustin nabarrak egin behar ditto laiarientzat eta gero Yoaztitzik gurdi ixtorra bere erristaldikin ekarri beharra do. Beroa ere ikaragarrie, galgatxiñe ekusten dela belarrari buelta ematen ari dira Lizarragan. Kan-kan-kan-tin-tin-tin... Judioak harrিতuta zer musike ote den hori. Eta zera, erlakumea yayo eta ez nahi alde egitea. Pertzak, zartarik eta soñue ateratzeko balio dun edozein gauze yo eta erlakumea sagar adarrean errenditu da. Aurten esan bai giñioan: "erlek, egiñ ez tie etxekandrea hil data". Itturizaharrean, Aieneko itturrian, Arekozubin eta Amazabalen emakumeak garbiketa egiten edo lixue yotzen herri guziko kontuk nahasiz. Hara zer dion batek: "Gure gizonak ez din dirue nolana hi gastatzen. Ez, oso kontuzkoa don. Mixtoatan dirue ez gastatzeagatik bai al dakin zer egitten dun? Zigarroa bata bestekin bizten din!" Gari ebakitzen, itten, izerdi patsetan. Garie espaltzen yarri eta belaxe ereta. Bittori bedeinkatutako sanjoanbelarrak suari botatzen, harriyasa ahiena dedin. Bestela haze izurramendie!

Anjel pestetarako kioskoa yartzen. Gibeletaz zuloak egin eta zerri zildez eurtzitako hiltze koipatuak sartzen. "Hola prestatu ezker hiltzea sartuko huke baita Sansonen barrabiletan ere!" Oialden barrena trena dator fiti-fata, fiti-fata, tuuut! Eta Inazio guardaguja pozik. Bai, orain trenbidea libre eta hartu mesille eta gaitzeurre ekartzea Erasotetik. Bittorio eskopeta bizkarrean hartu eta badie uso ehizera Usategietara eta bidenabar ezkurreen dabilten zerriak ikustera. Hegoaizea nahi baño gaztalak yotzen do.

Zimeletako errekan aldapari ekiterako hasi da puske yaten eta lau maki etzaizkio ba azaldu gosek hiltzen! "Nuena eman neioan. Gazta puske bat banien teko txarrakin baño hak ederki yantzien". Gur arratsean artazuritzailleak lau etxetan. Arrosnabarrak entzuten dira. Gero sermobe politik! Elize ilundu eta kulpituari zartako gaitzek emanez: "Denak kondenatuk zautea. Ifernuko hauspoaren beharrik ez dago artazuritzeko. Datorren urtean nahiago nuke arto guziak zainez gora jaioko balira. Gero ezkontzen dira eta haurra datorrenean zazpikiak direla, bai, zazpikiak direla esaten dute. Bederatzi hilabete ere ederki beteak dituzte bai". Artoa eta gerie ihotzeko komedik. Leitzen baziren hiru errota: Goikoerrota, Erdikoerrota (Olaberrie) eta Azpikoerrota. Baina rasionamentuko garaie izaki eta-errotak itxik zeuden. Yendea hortxe ahal zuen bezala asto gainean zakue hartu eta gabez Aisoko errotara edo Saldiskora artoa edo garie ihotzera. Azindari artoa ematea galerazia zegoen. Herriko goardak atariko behi kaketan begira ia artalerik azaltzen ote zen. Putzuz eta lokatzez betetako bideak barrena etorri da Gregori herrire. Orain bere ahizperen etxean oinetakoak aldatzen ari da. Rasionamentuko kartillekin olio eta azukrea erosi ditto. Itziki batean edateko diñe olio eman dioa. Ez ditto horrekin eltze asko manetuko. Eskerrak zerri mantekak badittuen etxen. "Plato únicoa" ere oradindu do.

Hamabostean behin etxe bakoitzek pagatu beharra bait do "plato únicoa" Miel Antonio galtzarbea bete paperekin exkuraberengana semeak ezkondu behar duela eta testamentua egitera. 1665tik hasita baditu eskriturak etxean. Gizaldiz gizaldi datozkion etxea eta lurrak ditto. Paretako eltzezuloan urrezko dituak ere baditto. Motiko kozkorak berdontzabart gabeko eskolatik atera eta gaztain erre yatea egin zuten etxean egindako pitarra leher edanez. Egunero periodikoa lehitzen duen Oxemari apezkondoa atertu gabe aritu zen gerrako berriak kontatzen. Orain arte ezagutzen den batailarik gogorrena Stalingradon egin omen da eta orain amerikanoak eta japonesak hi bai haiz ni banak omen dabilta Guadalcanalen. Alemanak atzeka omen datoz baina ari omen dira arma ikaragarriak asmatzen. Baita amerikanoak ere. Han baituzte Italiako eta Poloniako jakintsuak. Eta Alemaniko judio hile luze hori ere bai. Frantziako

kontzentrazio kanpoetan hemengo gerrakoan alde egindako jende asko omen dago eta beste batzuk alemanen kontrako gerrilan omen dabiltze. Oxaakin, Felix, Erramon, Oxemiel, Antonio eta beste batzuk argimezako aldiak egin eta usualez asetzen ari dira.

Ondoren truken edo musen saldak yokatzen. Miel gosaritzikie egin eta seittun yoan da etxera; Urdolara betizuak ekustera yoan beharra baita. Yokolariak bazkaltzen ari dira. "Lehengo urteko pestetanzortzi aizkoldari atera hittuen plazara. Denak Bittoriok irabaziko zuela uste baño akerra atera eta lanak juxtujuxtuan bukatu. Inaxiok eta Erramonek trabesen diruen erruz galdu zien. Gero ardiak falta eta Inaxioren andrea ardi bille burutik ia egiñen. Noizbait ere aurkitu zetien tratolariaren belatsoan eta hasi dok ateka irikitzen pozik eta ordun azaldu dok Miel Anttonio tratalarie: "Aizu ardi horik lehenago ziren lehenago zureak. "Pillotaritan berriz etzeok Atano hautsiko dunik". Gero berriz segi yokoan. Aurrena kafek eta kopak eta ilunabar aldera erdie eta erdie. Duple-yokoa bost eta txiki pasea sei, horrea honea. Joxemartin eta Martiuxe Gorritzarane yoan dire neska laguntzera eta honontzekoan harrike eman diote. Hure lardizkie! Kristinak eman diote lastargie baina harrikelarie ihes egiteko laisterka hasi direnean bota dute usu aski. Prontxiok illunbixten alde egin do straperlorra. Lehengoan latza egin zuten: Aresoko Santuruko gizona axurik straperloz zeramazkiela tiroz bota. Benito Toribionak, Goikoerrotan obie egiten aritzen den bertso zaleak, Kristobal Beñis zirikatu do eta honatx erantzuna :

Benito oni jarri biaizkat
 gaur izugarrizko saltsak:
 kontzientzian kargarik badok
 zor dittuk soineko galtzak,
 ik oreari naasten dazkiok
 arrikozkor ta ikatzak,
 jende guzie ajetzen ai dok
 obi egitten ikastzak!



Errementaneko herrie, judioak errezoak egiten zituzten etxea.

Muslari tripazai zitzi yaleak apaltzen ari dira. "Orain ilberri zeok eta bihar gurdi zureta-ko pagoak botatzea yoan behar diu. Etzi berriz zerri hiltzea diu". Apalondoan segi berriz yokoa. Enbittea eta puntu utzie bi eta medik bi lau, hemengo batez tira hamarra. Pellok diona: "horik egitten die egun baten sartu tabernan eta besten atera". Harakiñaren erdisukaldean fuuuuu arrotzgalda, laister norbait etorriko da ate yoka. Benita etorri da: Praxku yoateko datoren astearten zerrihiltzea. Zerri hil, zimeldu, tripek ateratzerakoan kafea eta ttantte hartu eta orain gosaltzen ari dira, gibela yaten. Manuel fabrikantea bakazioakin dago eta asekada ederra egin do. Tolosako paper fabriken alperrik galtzen diren paperak hemen baleude bizarra kentzekoan labana garbitzeko. "Andarrojillo" eskazalea atean errezoan ari da. Yaki puske bat eman diote eta pazkoa baño kontentugo yoan da. Zentrala egin zuten ederki kostata baño orain lehortea eta epurtargia bezalako argik. Mariak yostorrazari harie sartu nahi eta ez ekusten: "naizen emakumen ere antz eman nion hor etzela zentral bat erabiltzeko aña ur". Pakok arbi ateratzen eta bat eta beste ari eta eskuak itzatzituak dauzke. Joanita, kurandero kastakoa, ari da okendue egiten itzatzia sendatzeko. Joan karobireko harri ateratzen ari zela mundi munduko ebakie egin besoan eta Joanitak ebakibelarra patu eta sendatu zion. Olantzen aldabioan ari dire herrintzat eta yendea zutik ekusi ezkerro enkargatuk esaten do: "beste paldatik Miel Arrantxeroak tiro bat botako balik eta bat bakarra zutik egon ezkerro bat bakarra harrapatuko likek baño denak zutik egon ezkerro denak harrapatuko giñuzkek, anda la poitxorra!" Urta-be ona eta aldatutako landareak denak itsatsi dire. Beste paldan ikazkileak ari dire txondorrak sutzen eta lehengo gau baten Sasaingo ola zaharraren pareta gainetan sorgiñek ekusi omen zituzten dantzan. Kamañen lo egiten zuten eta Mieliko armiarmak hozkatu eta lepoan sekuleko bixike atera zitzion. Joanitak sendabelrekin enplastoia egin eta ondu zion. Gero lehertu, aranbirike garbitu eta sendatu zitzion. Praxku zintzoa da eta alde guzitara sayatue. Etxeko solairuk egiteko oholak bi anaien arte ebaki zituzten. Tronkoak leundu, zuharie eman, zata-gikin zerratokin yarri eta zerraz ebaki. Fermin perdetsa da. Lehen etxetik ateratzen etzena zen baño gero herrigizon egin zuten eta ordun axolkabetu zen. Balkobera ateratzen zen eta norbattek oihu egin balio bezala erantzuten zuen: "Ei, bai, bai, belaxe yonanen naiz." Eta sukaldera etorri eta etxekoei esaten zien: "Demonio kixkali koñoa! Oraiñe ezin omen duela deus egiñ ni gabe eta yoateko kontsejue esan dittea". Herrire yoan, apari ederra egin eta epel epel eginda etortzen zen etxera. Etxea yan zuen eta orain herribizkar bizi da. Tratalariak atez ate dabiltze eta hori azken juizioko siñalea omen da. Aezkoanoak datoz Arrolan behera beyek aurrean dituztela hemen saltzeko asmoz. Sarako burruse saltzaiñea hemen da igandero. Azpikoerrotako hariztian hungaroak eltze konpontzen ari dire. Ba dire berrogei baño gehiago eta egiten dituzten lanen sariak edo saltzen dituzten gauzen ordainak denak zaku batean sartzen dituzte. Sankristabek bi dandak yo ditto. Yendea estu estu die mezara. Atsaldean, bezpera ondoan, madre Noeli eta judioak bero bero ari dira beren religioei buruz eztabaidan.

OHARRAK: 1.- "Fonda Gogorza"ri yendeak "Musun" deitzen dio baina etxe hau Arritxeneko herrie da. Musungo herrie eta Arritxeneko herrie elkarren ondoan daudelako eta gainera yabe berarenak zirelako yendeak hartu zuen "Musun" deitzeko ohitura.

2.- Kristobal Beñisek Benito Toribionari bota zion bertso hau Joxemauek "Bordaberrik" kantatu eta "Karrettok" jasoa dauke. Eskerrik beroenak bie.

1993 URTEKO JAIOTZAK ETA HERIOTZAK

HERIOTZAK

1. PAULINA ARREGI URKIOLA
2. RUFINO ALVAREZ MARTXENA
3. ROMAN MARTIN CACERES
4. M.^a MAXIMINA ZUBITUR ARRIBILLAGA
5. EMILIA TREKU ZUBIRI
6. JOXE MIGEL ARRARAS ZUBILLAGA
7. TOMAS GONZALEZ PINTO
8. MARIA PERURENA SAGASTIBELTZA
9. LUIS ZABALETA OLASKOAGA
10. ISIDORA LARRAZ ERBITI
11. MIGEL RAMON ZABALETA ZABALETA
12. BALBINA ZUBILLAGA VILLABONA
13. NIKOLAS BULDAIN MUGIRO
14. JOSE MARIA REZOLA ESTANGA

JAIOTZAK

1. PATXI SUKUNTZA ORTIZ
2. ANE ZABALETA BAÑOS
3. JULEN OLANO ZABALETA
4. ARITZ LEZEA GRAGIRENA
5. JOANES LASARTE ARRUZA
6. XABIER IPARRAGIRRE ZABALETA
7. NAROA FERNANDEZ ZABALETA
8. MIKEL OLAETXEA LIZARRAGA
9. EGOITZ ZABALETA ALDUNTZIN
10. UNAI URKIOLA GORDOBIL
11. ANGELA SAGASTIBELTZA FORCADA
12. NAHIA BARRIOLA HERNANDORENA
13. MAITANE MARIEZKURRENA ZIGANDA
14. LIERNI SESTORAIN SARALEGI
15. JON ZABALETA RENTERIA
16. XABIER ODRIUZOLA AGIRRE
17. AINHOA URKIOLA EZKURDIA
18. MIKEL ZABALETA IRIARTE
19. JAVIER SAENZ GAYARRE
20. JUDIT SAIZAR ARDANUY
21. MADDALEN LIZARRAGA OLANO
22. MIKEL ASTIBIA ZABALETA
23. MIKEL OLANO OTXOTORENA
24. JORITZ OYARZABAL CEBALLOS
25. UNAI ASTIBIA GOIKOETXEA
26. JON ANDER BENGOETXEA LOPETEGI

**1993 URTEAN LEITZEN BATAIATUTAKO
UMEAK**

JULEN OLANO ZABALETA (93-1-27)
ARITZ LEZEA GRAGIRENA (93-2-5)
JOANES LASARTE ARRUZA (93-2-9)
LIERNI SESTORAIN SARALEGI (93-3-9)
JON ZABALETA RENTERIA (93-3-12)
JULENE MIREN BROWN ELOSEGI (93-3-13)
XABIER ODRIOZOLA AGIRRE (93-3-21)
UNAI URKIOLA GORDOVIL (93-4-29)
HAIZEA OTERMIN ZABALRTA (93-5-19)
EGOITZ ZABALETA ALDUNTZIN (93-5-20)
XABIER IPARRAGIRRE ZABALETA (93-5-20)
NAHIA BARRIOLA HERNANDORENA (93-5-27)
MAITANE MARIEZKURRENA ZIGANDA (93-6-1)
PATXI SUKUNTZA ORTIZ (93-7-24)
MIKEL ZABALETA IRIARTE (93-9-28)
MIKEL OLANO OTXOTORENA (93-10-14)
IÑIGO ZUBITUR SESTORAIN (93-10-28)
MIKEL ASTIBIA ZABALETA (93-11-3)
JAVIER ARTOLA MAZO (93-11-20)
UNAI ASTIBIA GOIKOETXEA (93-12-1)
JON ANDER BENGOETXEA LOPETEGI (93-12-7)
JORITZ OIARZABAL CEBALLOS (93-12-24)

HERIOTZAK (Leitzen lurperatuak) 1993

PAULINA ARREGI URKIOLA 79 URTE
ANASTASIA SAGASTIBELTZA ETXEBERRIA 82 URTE
RUFINO ALVAREZ MARTXENA 61 URTE
MAXIMO ZUBITUR ARRIBILLAGA 92 URTE
MARIA ANGELES LIZARTZA SARALEGI 33 URTE
KRISTINA ZABALETA OLASKOAGA 58 URTE
EMILIA TREKU ZUBIRI 78 URTE
TOMAS GONZALEZ PINTO 58 URTE
LUIS ZABALETA OLASKOAGA 66 URTE
JOXE MIGEL ARRARAS ZUBILLAGA 72 URTE
MARIA JOSEFA PERURENA SAGASTIBELTZA 83 URTE
MIGEL RAMON ZABALETA ZABALETA 89 URTE
BALBINA ZUBILLAGA VILLABONA
ISIDORA LARRAZ ERBITI 88 URTE
NIKOLAS BULDAIN MUGIRO 85 URTE

JOXE «KORREOANA», ISIDRO DENDARINEKOAN AOTIK



Isidro, gazte eta dotore. 1945ko ilbeltzean Benta Karrikan aterea.

Gutxi bezelako memoria du Isidro Sagastibelza Dendarineko izanduak. Elkar ezagutu orduko ohartu nintzen gizonaren dohai apartekoak. Min ikaragarria ematen zidan gogoan zeukan altxor ikaragarri hura galduko zela pentsatze hutsak, eta guzia ez bazen ere, pasarterik bihotzekoenak benik nola edo hala jasotzera animatu nuen gizona. Ez alferrik! Geroztik, bere oroimen harrigarriari esker, 170 orrialde eder bete dizkit, bakar baka-rik Leitza-rekin zer ikusia duten gertakari xora-garriak kontatuz. Egin

zezaken oparirik ederrena egin diola uste dut Leitzari, bere sorterreri maiteari: bere arima bere hizkuntzan eskeini. Horra jubilatu baten ejemplu ederra. Eskerrago genuke, beren bihotzeko altxor animikoa desbideratu eta aldizka urrutiko intxarrak erakutsiz haurrak bezala darabilzkiten horiei guzietan ere holako zerbaitetara eraginen balie.

Jakina, Isidrok jaso dituen pasarte liluragarri guzietatik, bakar bat baizik ez dut aukeratu honarako. Bere lagunik haundienaz ari denekoa, hain zuzen. Nik ez dut egin pittin bat orraztu, aranismo kulto batzuk herriko hizkeran paratu, tarteka ohar batzuk erantsi, eta garai hartako erretratuz apaindu bazik. Jatorrizko idazlanak ordea, dena denerako, inork ikusi nahiko balitu, ongi gorderik dauzkate, eta baita Isidrok berak ere. Kontuak hola, eta alperrikako azalpen hutsetan gehiago luzatu gabe, Isidroren ahotan uzten dizut hitza, goxo, arin eta xalo:

“Joxe Perurena Elola mende onen asieran yaioa zen. Atte, Austiñ, goizutarra zun, ta orain Korreoa etxea (Luisenea) esaten dioanera ezkondu **Maria Krutz Elola Larrearekin**, eta korreoa ibiltzen zun Leitzetik Lekunberri. Egunero, yai eunek ezik, iten zun yoan etorrie (bost bat ordu iraoko zittun), beti oñez **Plazaolako tren**a asi arten, da askotan belauetañoako elurrekin Uitziko gañen. Ordun karteroak etxe guzitan deitzen zun, da karta bakoitzeko laumaikoa kobratzeko eskubidea zun.

1932n Iruñen **Baztezenan etxeri** su eman zioanen, sarrerako atea bakarra erre zen. Egun berberen Leitza etorri zien, eta dendora gutxin **eun de geio karta** artu omen zittuen Baleztenanak; beño ordun kendu berrie zen kartasarie, ta Austiñek ala esaten zun: “*Lentxego erre izan balioa, dirualdi politte bilduko nun*”.

Oso gizon langillea zen Austiñ. Esaten zun egune goizen goiz mendeatu bear zela, gero gallendu itten zela bestela. Udan, tren etortzeako, beatzi terditako, belarren ta alorren aittute yoaten zen. Bei bat izaten zun oso ederra, ta bere alor, soro eta korreosarikin, familie oso ongi atera emen zun aurrera. Gerra asitte bigarren eunen, kendu zioan

korreolana, ta zarsaririk gabe gelditu zen gizajoa ainbeste urten lanen aittute ondoren.

Austiñek Iru alaba bazittun yostunak. Joxek berriz kontabilidadea korreoz ikasi emen zun. **Miel Etxarri kanonigoak** ala esan emen zion eun baten:

- Sekretariotako ikasi bear ziñuke.

- Ze esaten dozo!? Nondik ni sekretariotako?

- Bai, gizona! Neonek ekarriko dazkizut Iruñetik oposiziotako bear dien liburuk eta gauz guzik, eta launduko dizot al doten guzin.

Joxe asi zen bere ikasketatan, da Etxarri gabero etortzen zetzion apalondoan korreoa etxera aal zuna erakustera. Yoan zen Iruñera oposizioak egittera, ta lendabiziko gelditu alajañena! Andik obeitabost urtera **El pensamiento Navarro** zekarren **Hace 25 años** sallean: “*En el concurso de oposición celebrado en Pamplona, para secretarios de Navarra, José Perurena Elola de Leiza consiguió el número uno entre los que se presentaron para las oposiciones*”.

1933ko urtea izanen zen Joxek oposizioak atera zittuna. Neretzat meritutu aundie do, etxetik maittu gabe ikasketak in de aurreneko gelditzea. Aiso aukeratu zun laneako, ta egunero bizikletan itten zun bere yoan etorrie. Asko ibiltzen zen lenagotik ere bizikletan. 1926garren urten, Lasartera zila, orduko «**Circuito de Lasarte**» ikustera, **Tolosako mataderoko errebueltan** tranbiak arrapatu zun, ta denbora askoan eondu zen lanik egin gabe. Lasarterako kotxekarreran Europan zien onenak or izaten zien: **Caraccioli, Chiron**,...

Ordun utzi zun **Unaineko Antonio Lasartek «Banco de Vizcaya»** agentzie, ta Joxen arrea **Benarda Perurenan** artu zun. Antonio «**La Vaconia**»n sukurtsalakin geldittu zen. Joxe Leitzeke jukaduko sekretario zegoen gañera ordun. Beñi ezkonberri batzuk elizetik aterata yoan emen zien ezkontza zibille ittera, ta Joxek emakume ezkonberri izena nola zun galdetu zionen, ala erantzun emen zion:

- Joana, beño Joanita esate ittea.

- Nola yartzea nai dozo ordun Joana? Joanita? - Joxek txantxetan.

- Yari zazo ba **Juana Juanita**.

Primo de Rivera Leitza etorri zenen Ingurutxo dantzatu zuen, da Joxe Korreoa aurreneko izakio, ta **Primo de Riveran** alaba pilar atera zioan lendabizi, ta Joxek bere aurrean dantzatu zun lendabiziko zortzikoa; argazki bat atera zioan gañea, ta beñi baño geiagotan erakutsi izandu zien argazki ure. Par itten zun beti: “*Zetiñek esan bear zun? Ni Primo de Riveran alabakin dantzan?*”. Oso euskaltzalea baitzen, ta abertzalea. Leitzen itzaldi batzuk eman zittun euskal gauzen alde; etorri aundie zun izketarako; ta oso ederki itzeitten zun euskeraz.

Beñi arrantzan sarekin zebiltzela, zibillek arrapatu zittuen **Andres Largo Ormaetxea**, zapateroan semea, ta **Miel Sagastibelza Labayen Portolona**¹, eta Agirre Muruzabal **kaboak** (Naparroko Villafrañcako) izugarriko jipoa eman omen zion Largori; gorputzen erdie ubeldue utzi emen zion, da egun batzutan lanik in gabe egondu emen zen. Kaboa salatu egiñ zuen Leitzeke jukkadun. Nere osaba **Gregorio Sagastibelza Villa Paulinako**a zen jueza eta Joxe Korreoa jukaduko idazkarie. Sententzie Largon alde azaldu zen Leitzen, ta Agirre kabok Iruñeko epaitegire yo zun, baño Iruñen galtzen bazun kargutik botatzeko arrixkun arkitzen zen, da bittarte ortan gerra nola asi zun, ordun Agirrek ordagoa irabazie zeuken, da andik lau egunera edo **Joxe bota** egiñ zun **Aisoko sekretaritzatik** ta atte semek lanik gabe utzi zittuen. Gañea aizpe Benardari **Banco Vizcayako** sukurtsala kendu nai zioan, ta **Tolosako zuzendarik** esan omen zun, Benardari kentzen bazioan, itxi iñen zula Leitza sukurtsala. Baño

¹ Etxe honen izena joan mende guziko erroldetan Lugenea ageri da, baina euskaraz ahozkatutik Luyenea, eta hortatik sortuak dira egungo Luisenea, Luxenea,...

Ondoren ikusiko duzu, Luisenera ez baina Joanenera ezkondu zela Agustín.

² Gertakaria, 1933ko ilbeltzaren 4an Atsotegietako alaba Juana Labayen Urkiola Katalintxonera Joxemieli Zabaleta Sagastibelzarekin ezkondu zenekoa da.

³ “*Miel Portolonari Joxe Korreonak moldatu zezkion paper guzik Goardazibile sartzeko ta kontue zenbat zen ordaindu nai zion Joxeri, ta esan omen zion: 1936ko otsailen 16ko elezioatan nazionalistek emateko botoa nai bazun, etziola deus kobratuko, ta baita Mielek eman ere!*”.



Goian: Isidro, Loli Gastearena Musungoa eta M^a Luisa Dendarinekoa.
Behean: Mertxe Tirapu eta Dendarineko beste ahizpa Paulina.
Potroko Arrobin1941ko abuztuaren 24an ateratako argazkia.

ixtea etzuen nai, baizik Benardari kendu ta beste bateri eman, ta artan salbatu zen.

Andik amarren bat egunera edo zibillek yoan zien **Korreoa**n **etxea** beidatzera, ta atarin **bi reketek** leitzar geldittu zien atea zaintzen, beren fusillek eskutan zittuela. Ordu bete irao izanen zuen. Etxe guzie goittik beraño beiretu zioan eta arrapatu zittuen euskal liburu guzik eraman, da su eman zioan. Euskal gaiez baño erderaz idatzitako liburuak ere bai. Euskarazkon arten Orixen Euskalduna, **Zabalkundea** sortak atera berrik zittun liburuk, eta **Miel Antonio Larrazek**⁴ Donostin erosi eta Joxeri irakurtzeko utzi zion **Berto bilduma**, liburu ederra.

Joxeri norbattek esan emen zion erritik ez ateratzeko. Neri iduitzen zat **Jose Berrio Irurozki** goardazibillek esan ote zion; ure oso gizon ona baitzen. 1936-37ko negun, **Gillermo Gomez** eta gu iru senidek igande atsaldere korreoa etxera yoaten giñen Joxekin partxisen yokatzer, ta asko ixtimatzen zun.

Oso elizkoie zen eta mezara ta jaunartzera egunero yoaten zen gerradenboran. Nik askotan esaten dot: erlijioaren alde atera ziela, erlijioa galtzera zilata. Leitzen balitke: eunero mezara eta jaunartzera yoaten zion gizonak etzien sei izanen! Erriberan ainbeste yende il zuen mezara yoaten etzelako eta emen berriz eunero mezara yoaten zena garbittu nai zuen. Alare, Joxek ortxe seitzen zun kuzkur kuzkur elizera bakar, atera.

Baño1937ko udan **Batixte Zabaleta Martiartzinekoa**⁵ yoan omen zen Korreoa etxera Joxe ikustera, ta asi omen zion Leitzalarrez yolasen: Joxek oso gutxitan izandue zela ta, Martiartzinekoak nai bazun erakutsio ziola ta... azkenen biñipiñ Joxek baietz. Gero nere **osaba Gregoriori** ere esan emen zioan, ta ark ere baietz, ta olaxe yoan emen zion egune pasatzera **Leitzalarre**. Batixtek toki askotara eraman emen zittun, mendi guzin izenak esanez. Joxek ala esaten zun: "*Beñ ere aittu gabeko mendi izenak aittu nitun eun artan!*" . Batixtek bazekizkin mendi ta bazter guzin izenak, eta ark esan alen Joxek paper baten artzen emen zittun.

1937 azaron bien (difuntun eunen) goizeko ordubata aldera danbatego batek esnatu niñun; oso bertan zela oartu nitzen, baño belaxe loak artu ninddun atzera. Zazpitan yeiki nintzenen yakinddu nun:

Korreoa etxeko atera bota zuela **bonba**. Etzun kalte aundik egiñ, baño etxe barrenen zeudenak bai ikara latza! Atea autsitte gora ioko ote zion bilddurrek aiden eondu emen zion, ala esaten zion Joxek. Alare eunero bezela yoan zen mezara Joxe; nik meztatik eldu zela ikusi nun **Ojalateroa**n etxeko sokaldeko para baño aurreaxego esan zun aotsari aal zun guzie emanez: "*Au erlijioa defenditzen dabilznanak itten badue, zer erlijio klase yarri nai ote due?*" . Ori esan zunen, etxeko aten aurren bonbak zer egiñ zun ikusten nengoa ni, ta andik geroxego yakinddu nun nere osaba Gregorio Sagastibeltzan aten ondoan **beste bonba** bat yarri zuela.

Ildekoan egune zen ezker, nere osaban neskamea⁶ argimezara omen zin, da atea irikitzekoan, illunben didir egitten zun bulto bat zegoala oartu. Ure ikusi zunen atea itxi eta giltze kendu emen zion, obenen, nere osaba etxetik ateratzen bazen, konturatu gabe ez zezan ostropozo egiñ; ta neskamea bera beiko atetik yoan omen zen mezara. Gero reketek berak lertu zuen bonba tiroka. Ordun reketek **Asturiasko frenteko lanak** bukatute atxoitten zeuden Leitzen, da esan zuen, **Agirre Muruzal kaboak** agindu zioala gaxtakeri orik egitteko bi etxetan, naiko kopak artute ondoren; nonbatt koñakak indar aundie eman zioan.

Andik egun batzutara ikusi nitun bi goardazibill sokaldeko leiotik, **Korreoa**n etxe aldera nola sartu zion. Gogoak eman zion seittun korreoa etxera yoanen ziela. Yoan nitzen beste aldeko leiorea, ta bai jaune, etxe sartu zion. Andik belaxe atera zen Joxe bi zibillen erdin eskuk lotuk zemazkila; alaxe eraman zuen kartzelera. Urrengo egunen Iruñeko kartzelera, ta an **Manuel Irujon** anai batekin egondu omen zen. Ala esaten zun: "*nonbatt or: bat biñipiñ banun ezaune!*"

Iruñen bizkarreratzen zioan Leitzalarre Batixtekin ta nere osabakin yoan zionen ixpikxoan ibilli ziela, ta gañera karta bat Joxek eskribittue arrapatu zuela ta gorrikin ixpikxoan zebilela. Joxe bere lengusu propioari **Ignazio Tapia Perurenari** eskerrak salbatu zen. Karliste amorratue zen Inazio, Iruñeko **Centro Carlista**ko agintaritakoa, ta epaiketan asi zienen, karta faltsoa leittu ondoren, Inazio Tapiak eskatu emen zioan erakusteko karta, ta ikusi emen zun da, esan emen zioan: "*Au ezta iñondik ere nere lengusun letra, au norbattek nere lengusue ondatzeko iñe da, ta Junta Carlista de Gerrakoak denak Inazio ezaunek nola zien, esan emen zuen: "sabemos que tienes que conocer la letra de tu primo y te creemos lo que dices". Amaika aldiz esaten zun Joxek: "Eskerrak nere lengusuri, gañekoan kamio baztarren baten ilde negoa aspaldin".*"

Joxek askotan aipatzen zun atten sorterrie. Leen aittatu dazkizot Inazio Tapia Perurenan kontuk, **zapelgorri amorratue** zela esanez: Nabarrerri karrikan zun argizai fabrike ta denda bat; asko saltzen emen zun. Ark ere ama goizutarra zun. Beste anaie **Alejandro Tapia Perurena**, askotan yoaten zen Leitzera. Beñ berakin yoan nitzen **Sakulu** aldera onto biltzera. Alejandro alemanin izandue zen amelan ikasten, da gero Iruñen aleman erakusten aitzen zen. Abertzale amorratue zen, euskeraz ongi zekin; baditto euskeraz egindako olerkik. Orain dela gutxi liburutegin, Enciclopedia de Navarra 1990an Diputazioan laguntzakin ateratakoan beidetu nun, eta badekar Alejandro berri, esanez oso lan polittek egitten zittula euskararen alde, ta aittatzen ditto bi olerkin izenak ere. Arreri ere gorrik erakutsi omen zezkioan gerran asieran. **La Voz de Navarra**n asko idazten zun, ta orregatik espetxeratu zuen, ta bere anaiari esker ez zetzion gertatu deus. Onen alaba bakar, nere alaban lagune da; elkarrekin ateratzen die igandetan.

Joxe Korreoa, Iruñeko kartzelatik berriz etxera itzuli zen, beño 1938ko urten azkenaldera, erbesteratu egiñ zuen, da **Burgosen** irao zittun illabete batzuk, eta esaten zun, Frantziko gobernuk **Mariscal Petain** 83 urteko attuna engajadore bialdu zunen, 1939ko martxoan azkenaldera, nola ikusi zun leiotik, bere eskoltakin kredenzialak Frankori era-

⁴ Miel Antonio Larraz, egungo Joan «Barberoa»ren anai propioa zen.

⁵ Garregun Goiko Soron bizi den Joxemiel Zabaletaren aita zena.

⁶ Maietako alaba Frantziska Bordegaray Villabona, gero 1940ko apirilaren 3an Zabaloneko Lontxo Kanflanka Zabaletarekin ezkondu, eta Andoaina joan zen.

kustera yoan zenen.

Españoko gerra akittu zuten ni Gazteizen negoan, ta Joxe Burgosen. Gero Leitza etorri emen zen erbeste aldie bete zuten, ta Donostin zerga biltzaille asi lanen Diputazioantzat. Baño non zegoan yakinddu zutenen belaxe bota omen zuen. Urrengo saltoa Teruelko probintzire egiñ zun. **Karlos Eugi Barriolak** ardandegi baten yarri zun. An illabete batzuk irao ta **Venta Carrican** Eugik yarri zun ardandegin ondu zen zuzendari. Leitzen etzekien inork non zegoan; ya ala paken uzten zioan. Nere arrebak, edo nik ere bai batzutan, etxetik idazten zezkioan kartak, treneko bagon baten buzonen botatzen giñuzen, beño trena ateatzen asten zenen.

Olaxe, 1943ko urten aseran, esan zien Joxen arreba **Jesusak**: ya **Karrikara** yoan nai nun, Joxe zegoan ardandegire? Baiezkoa eman nion, baño alare lengo lanen yarraitu nun. Ni ordun **Biuretara** din kanala zabaltzeko lanetan ari nitzen; **Ollinen** egitten giñun lo. Ez nekin noiz yoan bear nun, beño atsalde baten antxe agertu zen **Batixte Ariztimuño**⁷ bille: egun batetik bestera Karrikara yoan bearra nitzela esanez. Ollifien elur gutxi zegoan, baño **Tardoko gañen** 40en bat zentimetro bai, ta otsailen 26en **Likinianok** eraman nindun Leitzetik Iruñeño, ta biamonen **Roncalesan** zortizan atera ta ameikak eta laurdeneako **Karrikan** nintzen. Autobuse gasoelokin ibiltzen zen, da 75 kilometro egittek iru ordu ta laurden alajañena!

Jakara din biden zegoan **Venta Carrica**. Pantanon bukaeran, bidagurutze baten artzen da **Erronkariko** ibarreko kamioa, ta andik artute belaxe ezkerretara zegoan. Etxea bota zuen, baño ardandegiko porlanezko tolaiek antxe daude oañik: 6 ontzi 16.500 litrokoak bakoitze, ta beste iru 26.800 litrokoak.

Nork geren bizitza itten giñun: **Joxe** bere arreba **Jesusakin** zegoan, ta ni nere izoa **Dolorexekin**. Apalondoan beti Joxen bizitzera yoaten giñen. Joxek bazun **irratie** ta ordun **munduko bigarren gerratea** pilpillean zegoan, da an entzuten giñuzen **Radio Pirenaika**, **B.B.C. Londreskoa**, **Aita Olason itzaldik**, ta **Andorra irratie** ere bai. Emengo irratik alemanen aldekoak zien, da oso berri kaxkarrak ematen zittuen: alemanak aurrea zizela beti; besteik etzuen esaten.

Joxe goizeko bostetan yeikitzen zen egunero bere otoitzak egitera, ta erlijio liburuak ere leitzen zittun, lanen zapitan asi aurretik. Ni zapitan deitzen nindun. Oso argi eramatten zittun kontuk. Norbattek eskea itten zuten, berak yartzen zien neri ze klasetako edarie ta zenbat kupel edo garrafoi bear zien, ta nik ordun ontzik ongi garbittu, lenda-bizi kupela utse pisatu ta gero beteta berriz; nik kontuk eramateko neuk liburu baten yartzen nittun andik ateratzen zien edari guzin litroak eta balioa, ta ondoren Joxek beste orrenbeste. Illabetea iraotzen zenen, kontu guzik beste liburu baten yarri, ta paper guzik gordetzen zittun.

Bost litro baño gutxigo likoretan ez giñun saltzen, baño etortzen zien errotarin alabak, baita **Artieda de Aragongo** errotarin alabak ere, ta ok eskatzen zuen: batek iru litro koñak, bestek bi litro, ta ordun itten giñun bost litroko **vendí** esaten zetziona. Vendí ori gabe ezin zitteken inori likoreik eman. Guk ori ematten giñioan: oloa ta garragarra iotzen zezkiulako errotan (bakizo: garai artan dena **razionamentun** baitzegoan). Oloak eta txerrik ere baginuzen, ta pentsurik etzen saltzen ordun, baño nolabate azitzen giñuzen.

Orregatik esan dezaket Joxek etziola sos bat ere kendu **Eugiri**. Oso ongi konpontzen giñen elkarrekin. Karrikan bazen lur aundi bet, eta an ereitten zuen **oloa** ta **garagarra**, ta belarretako: **alpapa** ta **esparceta**. Urtero bi segalari etortzen zien bazka ebakitza ta Joxe oso segalari ona zen ba, ta batzutan bera asten zen segan, ta arritute gelditzen zien Joxek nola ebakitzen zun ikusitte. Beñi batek ala esan zien: "Si



Isidro, Guillermo Gomez, Paulina eta Maria Luisa. Tranpatxoko kamio zaharrean 1942ko ilbeltzean aterea. Atzekaldean Kandeletxe ageri da.

este ha estado en los frailes, dónde ha aprendido a cotar la hierba tan bien?". Esan nion etzela frailetan ibillie. Elizera asko yoaten giñelako esaten ziguen: "*los frailes de la Venta*".

Ez giñun telefonoik, eta Joxek egunero idazten zion Eugiri karta luze bat zer salmentak in giñuzen ta denan berri emanez. **Karlos Eugi** denbora artan Naparroan lendabiziko industri gizona emen zen. **Azukre fabrike** bazun Iruñen, da esaten zuen bakarka bera besteik etzela Españi guzin azukre fabrike baten yabe; beste guzik talden sortutako fabrikek ziela. Atsaldero yoaten zen Joxe **Sigüesara** bere **Alcicon** (bizikletaren marka) arren gañean, (Aisora ere arrek in ibiltzen zen): elizera sartutera bat in, mandatur artu, ta etxera, Sigüesara, an baitzun etxea. Venatik bi kilometro terdira dao Sigüesa.

Gero, alajañena, **andregaie** billatu zun, an maistra zegoana, **Bittori Larrat Otxagabikoa**; euskera aztuxea zeuken, da gero ikasi zun Joxekin. Maistra onek bazun anai bet **Garesen** maisu zegoana, ta gerra etorri zenen, abertzalea izateatik **Larragara** bialdu zuen, sei illabeteako, yornalerdie bakarra emanez.

Joxe 1945eko abuztun ezkondu zen Iruñeko **San Agustín** elizan⁸. Enitzen izandu Joxen ezkontzan, beño amarren bat egun irao zittun eztaietako biagen, da bittarten ardandegiko lanak nik in nittun: eun orientan **Eugi** kartarik gabe gelditu zen. Fakturek eta «vendí» guzik nik itten nittun.



Andik belaxe, 1946ko apirilren azkeneko eunen, amaiarrebak kutxe eder bat ekarri zion eunezko arropa berrikin, da urrengo egunen, **maiatzen aurreneko egunen**, **erre egiñ zitziun Carrica**, etxe guzie, piñuola zun, da belaxe kizkali zitziun dena. Joxek nik baño gauz geio zittun, da oso gauz gutxi atera zittun. Neri ere arropa ta gauz asko erre zizkitzien: penik haundina nere atte zenen arloju «**Longinos**»ek eman zien; iru tapakin zen, da tapa baten urrezko domiñak zittun; argazkik ere erre zezkitzien: iru **Tardon** egiñ zen arbola egunekoak, Santa Engrazin ateratakoa beste bat, eta **Don Luis Yabenek** Leitzeako elizeko kargu hartzea egi zunekoak beste lau; nobatt or: gabardina ta traje bat, erosi berrik, erre gabe atera nittun!

Don Karlosek esan zigun **Kalahorran** ardandegi aundi bet egiten ari zela, ta ara eraman bear giñuzela; beño ni ezkondu nitzenen atera nitzten, ta Joxe andik belaxe **Martzillako** «**La Granja de San José**»a eraman zun **Gibert** jaunak. Esnebei saill aundie emen zuen an, ta frutabola asko aldatu emen zuen landan sekuleko aldabiok egifiez. An bizitu zen 1959ra arte

⁷ Galdetu Batiste Joamarinari, ea gezurra ote den?

⁸ Leitza asko ezkondu izan da eliza hartan. Behar bada, Bautista Sukuntza Aurtzikinekoak harrian egindako San Agustinen irudia han izaten zelakotz.

Joxek eta, **Peraltan** zuten etxebizitza, eta han bizi zirela jaioko zitzairen, Javier Perurena Larrat, seme bakarra, Iruñean, 1952ko azaroaren 24an. Handik sei urte terdira eginen zuen mutikoak lehenengo jaunartzea, honatx Isidrori bidalitako karta batean nola azaltzen dituen orduko kontuak Joxek:



"Gero Gipuzkoako Diputazioak yari zun **Nekazari Eskolako** zuzendari eraman zuen, berak kartan esaten zien bezela. An zegoala jubilatua zen. Nik asko ikasi nun berakin aittu nintzenen: ederki erakusten zun gauzek nola egin; ta oso txukune zen lan guzitan: artiosoa.

Izketan asten zenen norbattekin, izugarriko etorrie zun; izlari ona izanen zen, beño etzun aukera aundik izandu. Nik uste dot euskera idazten asi balitz, etzela atzen geldituko. **Joxe Artetxe, Orixe, Manuel Lekuona** ta orikin oso adixkide zen. **Aranalde, Orixe** illobakin, ere izketatu izan bear zun Donostiko nekazari eskolan. Denbora artan, deusetik asitte gora egitten zuenei espa izaten zioan, da balitke ori gertatu izateko Joxeri ere: oso gora zila ikusi zuen, da al zuen oztopo guzik yari zezkioan biden. Esan nai dot, aberats baten semea izan balitz, gorago igoko zula yende, baño ordu gertatzen zen: betikoak bear zuela agintaritzan eta ez beittik gora ongi eldu zienak. Baño Joxe, bere nortasuna eta gaitasuna erakutsiz, ongi merezitako tokitan egondu zen azkenen. Gerra bukatu ta **Carrican** zegoala, **Naparroko Diputazioak** eman zion aukera, berriz ere idazkaritzara itzultzeko, baño Joxek erantzun zion: kendu zezkion 8 urtetako dirusarik itzultzen bazekioan baietz, beño gañekoan ezetz. Diputazioak etzez kion itzuli nai, ta alaxe gelditu zen. Carrican zegoala, beste bi tokitarako ere billatu zuen lana, baño **Gibertan** eskeintza arten bertan seittu zun.

Jubilatu ondoren, 1976ean, abogadu batek esan emen zion, lege berrikin zarsarie kobratu zezakela, ta Españoko gerrakoan kendu zioan Aisoko sekretariozko lana, beti artan seittu balu bezelaxe ordaindu emen zioan ill arte. Tafallako zarren egitzan il zen 1989ko epilaren 29an".

JOXEREN SENIDE ETA AURREKOEI BURUZKO DATUAK

-**Senideak:** Leitzako herrian, **Joanene** izeneko etxean (Elgoiengo 25 garrean) jaiok ziren Joxe «Korrooana»n senide guziak: Zaharra, Joxe 1896an, Lina 1897an, Jesusa 1899an, Juan 1901eko ilbeltzaren 15ean jaiok eta handik lau egunera hila, Jose Manuel 1903an, eta Bernarda 1904an. Hor ageri den azkenaurreko Jose Manuel horixe duzu gero **Joxe Korrooana** izanen zena; 1903ko abuztuaren 2an jaiok. Aitaren ofizioagatik hartua zuen izenondokoa. Ama berriz, izugarri jostun ona omen zuen, eta ahizpak ere etxeko eskolan ikasiak.

-**Gurasoak:** Senideon gurasoak Austiñ Perurena eta Marikruz Elola ziren. Austiñ, ponteko izenez **Agustin Antonio**, 1867ko uztailaren 6an Goizuetako **Kuxinbordan** jaiok zen. Ama Marikruz berriz, Leitzan, **Tolatxenen** jaiok 1861eko maiatzaren 3an. Ezkondu zireneko agiriak, laburturik, honela dio Leitzako elizan: "...a las cinco de la mañana del día 28 de Noviembre de 1895... contrageron matrimonio **Agustin Perurena Zabaleta**, soltero de edad 28 años, natural de Goizutea y vecino de esta, de oficio labrador, hijo legítimo de Vicente Perurena Perurena, ya difunto y de Maria Micaela Zabaleta Mariezcurrena, natural y vecina de esta, y **Maria Cruz Elola Larrea**, soltera de edad 34 años, natural y vecina de esta, dedicada a las labores propias de su sexo, hija legítima de Jose Maria Elola Labayen y Maria Micaela Larrea Villabona...". Ezkondu zenean oraindik korreo lanetan hastekoa zen beraz Austin, ez zuen bestela «de oficio labrador» paratko hor goian.

-**Aitaren senideak:** Joxe «Korrooana»n aitaren senideak, berá bezalaxe, Goizuetako **Kuxinbordan** jaiok ziren denak. Zaharra, Josefa Antonia, «**Yacuchene borda** o **Cuxiñene borda**» izeneko etxean jaiok dela dio jaiotzako agirik, baina, beste senide guzien jaiotzako agiritan **Kuxinborda** baizik ez du aipatzen. Horrek esan nahi du, **Yakutxene** izena galdu egin zuela etxeak. Dena dela, izen pasakorra zuen, Don Bixente Hernadorenak egindako etxeen izen zerrendan 1800.ez honuzkotzat ageri baita. Jaiotetxearen izenak izen, honatx senide guzien zerrenda:

- Josefa Antonia 1862ko urrilaren 10an jaiok
- Juan Bautista 1864ko apirilaren 2an jaiok
- Jose Luis 1866ko martxoaren 20an jaiok
- Agustin Antonio 1867ko uztailaren 6an jaiok
- Juan Miguel 1869ko martxoaren 25ean jaiok
- Maria Victoria 1872ko ilbeltzaren 11n jaiok

Senidetan laugarrena zen beraz Agustin Antonio, gero **Leitzan Austiñ Korroo** deituko ziotena.

-**Amaren senideak:** Joxe «Korrooana»n ama Marikruz senideak **Tolatxenen** jaiok ziren denak. Handik pasako ziren gero **Joanenera**; honetan ageri baita famili guzia 1867eko eliz erroldaz geroztik. Beste hiru senide bazituen Marikruztek: Jose Joakin 1854an jaiok, Josefa 1858an eta Bernarda 1866an. Aitona Juan Fermin **Elola** aresoarra zuten. **Maxurren**en neska zegoala ezkondua zen Marikruz bere sortetxera Austin «Korroo»kin.

-**Aitaren aldeko aitona:** Bixente Perurena Perurena, Goizuetako **Baztan bordan** jaiok zen 1826ko martxoaren 22an, goizeko seietan. Pontera jasotzekoan **Vicente Ferrer** para zioten izena. Atautxia, **Don Vicente**, etzuen normahi, **Zibolako** nagusietakoa baitzen. Kontrabandista ezaguna omen zen Bixente. Behin karabineroak harrapatu eta haren txaketa eskuan zutela gelditu omen ziren, baina Bixentek ospa egin berrizkoan ere. Beste bi senide bazituen gutxienez: Juana Josefa 1828an jaiok eta Fermina Ignacia Anselma 1833an jaiok. Azkeneko honi auskalo nola deituko zioten gero herrian. Senideon gurasoak, Juan Antonio eta Madalena, 1825ko otsailaren 27an ezkonduak ziren, elkarrenganako «cuarto grado de consanguinidad doble» zutelarik. Bi aldeetatik ziren beraz lehengusuak.

-**Aitaren aldeko amona:** Marimikela Zabaleta Mariezcurrena, Leitzako **Miltxon** jaiok zuen Joxe Korrooan, 1832ko buruilaren 2an; bixkia zen gainera: Honatx bi ahizpen jaiotzako agiriak elkarren segidan:

LEITZA ETA ARAMAIO: BAI HERRI ETA ISTORIO BAT

Guratz mendiko gailurrean nengoen batean, herriak bereizten dituzten mugak nola arraio ezarri ote ziren galdetzen nuen baitan. Guratzekoan, izan ere, porlanezko erpin baten inguruan, lau herrik dute muga: Huitzik, Gorritik, Aresok eta Leitzak. "Hau ez da ba, noski atso goizean hitzartutako itxurakeria izanen" nioen nere arteko. "Hitzarmen eta konbentzio hauen atzetik arrazoi serio eta sendorik egon beharra du. Gainekoan, nondik, *mugarriak* ezerik, horrenbeste *ataka, hesi, langa, limite* eta abar?"

Herrira jaitsita, galdetzerik ere ez nuen behar izan muga kontuez zeozer jakiteko. Amak berritu ninduen lehenbizi; honek, ordea, kontua oso-osorik jakin ez eta Tolotxenera jo nuen beste norbaitek esandakoarekin parekatzeko. Hona hemen Celestina Alkoz-ek esa zizkidanak:

"Esaten zuen lengo zarrak mugak itteko yarri zittuela Goizuetan etan Leitzen bi emakume... Eta asi zela Leitzeke emendik Goizueta biden. Eta ara allatu emen zen plazaño; eta, klaro, bittarten, Goizuetako andrea ari emen zen bere burue orrotzen da apaintzen. Eta bittarte ortan ara allatu Leitzekeoa. Mesedez pixkoat atzeatzeko esan emen zion goizuetarrak, eta ordun pixkoat Leitze aldeago etorri emen zen da iñ emen zuen muga."

Orduan ere Leitzekeo arrandia garaile. Eta hala da, hor ditugu Ibero eta Rezolako zentrala, Goizuetatik hain bertan baina, halere, Leitza barruan.

Berriz ere Guratzeko gainean nengoela, elkarrekin nahasten ziren bi haize-bolara fuerte antze-man nituen, Leitza aldekoa bata eta sartaldeko bestea, berriketan ari bailiren ziztuka eta arnas hestuka. Belarria erne jarri eta mintzagai muga kontua zutela jakin nuen. Sartaldeko haizea gai-

lendu zen une batez eta Anboto menditik heldu zela jakin nuen. Guratzeko gainetik ez da zaila Anboto mendia ikustea, Aizkorritik haruntzaxe eta Gorbeatik honuntzaxe, zilarrezko piramide baten gisakoa.

Aukera izandako batean Anbotora jo nuen; eta Anboto azpiko Aramaio herrian Leitza eta Goizuetakoarekin senide dirudien istorioa jaso nuen. Hona, Aramaio Mendako baserriko Felisak, Aramaio eta Otxandio arteko muga kontuez esandakoak:

"Aramaxokok tranpie ein sabien". Izan ere, bi herrietakoek zera hitzartu zuten: "ollarrak kukurruku itxen euenien urteteko batek Ontxandixon eta beste batek Aramaixon". Bitartean beste batzuk "juan sien mugarrire konprobetako. Aramaxokok ein sion Otxandixokoi tranpie. Ipiñi tzien ollarrai kandelie, ordun etzeon argiik eta; ipin sabien kandelie eta ollarrak kukurruku eiñ auen; Ollarrak kukurruku eiñ auenien mobidu sien Aramoxokok eta allau sien Otxandixora. Eta, eguna sabaldu baño selan eguen, Otxandixokok egon sien etxoiten. Eta Aramaxokok allegau sien ba Otxandixon eleixie daon lekuraño; Otxandixoko eleixa erdi-erdixan daoela esaten due mugarrixe. Ta orregaittik da Otxandixo sati bat Armaixo eta geratu sien bis-kaitarrak ba olan gutxiauas".

Hara hor lehiak nekerik gabe irabazteko modua. Haiena eta gurea modu eta bide desberdina izanik ere, ez al dira, ordea, bi istoriak igualtsu? Mintzoak, beti ere, ñabardurak gora-behera, igoalak ditugu: mugarik ez zeneko garaiaren lekuko, hain zuen.

TRIFON



LEITZAKO ARBOLAZ KONTU BATZUK

Denak ezin kontatu hemen, jakina. Baina, askoz gehiago biltzeko asmoa adieraziz, batzuren batzuk bai. Ohar zaitetz: Oyaldepean dago Leitza, eta hala kokatzen du beti usuarioak. Besteak beste, Manuel Lasarteren bertso gogoangarria lekuko:

*Leitza, len ere zuri kantari, nago askotan jarduna.
Zure alaba nuen nik ama, bulartsu azi ninduna.
Zu zera gure sieska xarra oialez jantzi zenduna
Oyaldepean goxoki zauden erri polit euskalduna*

Ongi erreparatzen badiozu, **Oyalde** tokizenak **Oihan alde** baizik ez dizu esan nahi. Sinale arbola ederrik izan dela joan den aspalditik. Goian pagoa eta behean gaztaina, dena ohian itsua omen zen joan den mende akabera arte. Oialdetik hasi eta Leitzako lurrei jira osoa eman ezker, jainkoak bestek ez daki zenbat kontu esan liteken arbolei buruz. Hona batzuk Unaineko Luis Lasarteren ahotik jasoak:

"Emen pagoa berez etorri da asko, baño aldatuk e bazien. Oyaldeko pagoak 1830 ingurun aldatuk zien, da Asketakoak eta Artzulokoak ere bai. Andik urte askora, 1916an, Ayuntamentue berritzeko dirue bear ta, ordun atera emen zittuen subastan Oyaldeko pagoak, gure atte zenak esaten zun baziela pagoak xuxen xuxenak ogeitamar metro ta geio zittuenak. Goitik bera arrastan bajatu, ta trenez eramane emen zittuen Donostire, ta an ordarpen sartu emen zittuen, oain Gros deneko auzoa itteko zimentu gise. Akin atera zuen dirukin pagatu emen zittuen Ayuntamentue berritzeko gastuk. Gure atte zenak esaten zun 98.000 pzta kosta ziela Ayuntamentuko gastu guzik.

Gero aritze re asko zen emen, baño Ollingo erreka ortan burniola asko zen, da orko aritzek zien morroak, burniola oitako zur ikatza itteko adarrak kentzen emen zizkioan; fundiziorako ikatz ona emen zen berotasun motela zuna: gaztañena ta aritzena; pago ikatzak berotasun aundie ematten baito, ta kalori geiegi txarra izakio burnie funditzeko.

Eltzabalen zen beste arizti izugarri ona. Andik material asko atera zun Ayuntamentuk. Tutene erre zenen ere andik eman zion zuretako eurre. Erasoteko euteran dao Eltzabal, ta or itten da Leitzeko aritzik fiñena, Leitzalearre baño askoze obea da ori aritzentzako, an baño lur fuertegoa baita.

Gero aritz partikularrak e bazien asko. Errementanen aritz ederrak zien, oain dela 30en bat urte bota zittuen; aritz bat bazen izugarri ederra, ta aren olak eotten zien Demetrio Salbarredin batzan, Gaztañagan etxen kontra, oaintxe muittu berrik die, erriko obratan asi dienen. Xeroren bordan e bazien aritz oso ederrak, ortxe berroitamar bat arbola izugarri ederrak. Aik bota zittuen oain dela 45en bat urte.

Aritz amerikanoak berriz, mende onen asieran, 1910-15 aldera etorri zien lendabiziko landarek onera, ta batzuk partikularrak ta bestek Ayuntamentuk, franko sartu zien. Yoandegikoak bazien Giltzur iturrin. Gero Oyalden bazien iru landare gurek, Unainekoak, ta gure semeik zarrena ezkondu zenen, sukaldeko zuraje lanak itteko bota giñuzen, 1985an".

Bai jauna, Leitza lehendabizina sartutako haritz amerikanoak, Malkorreko **Joanito Berasategik** bota eta ekarri omen zituen Unainera. Baina lehendik ere bazen Unaienen zuraje ederrik: intxaurra, gerezia, bertako haritza, gaztaina, haritz amerikanoa, haritz frantzesia. Nabari du etxeak, zura maite duten jabeak izan dituela. Ikusi besterik ez hango solairuak, armarioak, ohazurak, mahaiak, alkiak, apalak, frontalak, eta habeak? Bai galantak! Luisena duzu berriz ere hitza:

"Gu ttikik giñela asi zen «la fiesta del arbol» zelebratzen, 1926,27,28... urtetan izaan zen. Urtero itten zen. Diputaziotik ekartzen zien plantak; ayuntamentuko peonak zuloak aurretik itten zittuen, da eun ortan yoaten zen maisue, Santurnino Irisarri, eskolako mutikozkorrekin, da mutiko bakoitzak aldatzen zun planta bana, ta erriko goardak eta laundu itten zioan. Baño etzun resultaduik eman. Emen ordun erri guzie nekazarie zen, da azindak larrea bear, ta etzun aittu nai izaten itxitu kontuik. Basakabitik aurreko pagoak ordun aldatuk die".

Azkeneko aldiz Joxemari amerikanoa alkate zegoela ospatu zen «**zuhaitz eguna**». Aurreko urtean sute ikaragarriak izandu ziren Leitzalearren, eta 1930ko otsailaren 8ko batzarra honela itxi zen: *"El la villa de Leiza a ocho de Febrero de mil novecientos treinta reunidos los Sres. del Ayuntamiento pleno y Junta de montes, anotados al margen (Serapio Iturrarte, Saturnino Irisarri, Juan Fermín Cestau, Juan Miguel Lasarte, Bernardino Arrieta, eta Joaquín Gogorza) bajo la presidencia de D. José M^o Lizarraga para celebrar sesión extraordinaria, se dió lectura al acta anterior que fué aprobada.*

El presidente expuso a los concurrentes que el día 17 de Enero de conformidad con el acuerdo de la sesión anterior, se procedió a la subasta de los cierres de Errolle y Arizpe, sin que se hubiera presentado pastor alguno. Y se acordó se proceda al mismo por administración, formándose al efecto dos Brigadas de a diez peones pernonctando en las inmediaciones con rancho por su cuenta y jornal de siete pts, disponiéndose de dos caballerías para transporte de alambres y demás. Que a continuación y por el mismo procedimiento se lleve a efecto la plantación, obligando de antemano a los rematantes a dejar en condiciones los hoyos abiertos a este fin. (...)

Finalmente se acordó se preceda a la celebración de la fiesta del arbol en las inmediaciones de la carretera del alto de Usategieta. Indicándose para ello extraer unas doscientas plantas de haya en los montes comunales donde haya planta fresca y con personal apto para dicho trabajo".

Aurreko urteko suteak kizkaliai utzi zituen **Errolle** eta **Arizpe** itxi eta pago landarea sartzeko asmoa etzen batera txarra. Baina, mendiak ixte eta landare sartzeko kontuetan artzaia beti atzeka; larre soil librea beste anetsik ez baitu izaten. Ez zion inork aurrepiderik eman itxitura eta landare kontuetan, eta berak eginen zituen aldabioak Joxemari, ahal zuen bezala peonak hartuta. Baita **zuhaitz egunerako** proposatu zituen aldabioak ere. Orduantxe sartuak omen dira orain **Basakabitik Uztarleku** aldera dauden pinu alertzak. Oraindik gogoan du **Martin Larrazek**, nola ibili zen landareketan: *"Basakabitik aurreko piñu orik nik kotxen eramanda sartuk izaten die, ta Leitzalearren sartu zittuenak e bai. Lan guzik, gastu guzik, denak berak itten zittun Joxemari, eta andrek eta denak esaten zioan. «Zuk zergatik ibilli beazo ola, bestek ez badue deus in nai? Atera zattea ortik eta pakea; dabilzela nai duen bezela!». Alaxe atera zen ayuntamentutik, da geroztik etzioan deustan kausoik itten".*

Joakin Gogortza Artxikonekoa, Bernardino Arrieta Urtokoa, Tomas Telletxea Iratikoa eta horiek omen ziren menditako junta-koak, langileei itxiturak eta landabioak egiten lagundu zietenak. Orduan aldatutako haritz amerikanoak, hor ageriko dira, nahi dituenak ikusi. Leitzalearren: Juezan bordondokoak, Bentako bordapekoak, Sobarrego bordapekoak, eta beste toki askotakoak... Aldabio horitatik asko, sasiak hartuxeak zeudenak, Espainiko gerondoren garbitu omen zituzten, hala esan dit Luis Lasarte Unainekoak. Geroztik, zenbateko kaltea ekarri ote die artzaiei? Eta mesederik bai ote udal lurrari? Landabioak landabio, egin dezagun bakanka

nabarmendu diren ondo batzuren historia pittin bat. Olanzko haritza. Soroko Gaztaina, Sasaingo izaiek, haundiegia dira bonako.

NESKAZARRAN PAGO: Ezagutu dira Leitzako oihanetan pagondo ederrak. Eta oraindik ezagutuko direnak! Erasoteko egutera, Oialden, Asketan,... Leitzalarren berriz, **Barreneko** bordaburuan eta **Martiarztzineko** bordondoan emen ziren bi pagondo ikusgarriak, hala esan dit Benito Luxeak. Aurrenekoaren puska biribila hortxe duzu karrapean zintzilik, Leitzako pagorik haundienaren lekukotzat paratua. Ba omen zen halare beste pagondoa Leitzalarren, bi horiek bezain sonatua: **Neskazarran pagoa**. Neskazar zelebre bati zor dio oraindik pagondoak bere berezitasun historikoa. Egia da batzuk «Neskan Pagoa» deitzen diotela. Halaxe jaso du Joxemiel Elosegik ere Leitzako tokizenen zerrendan, baina beste askok «Neskazarran Pagoa» deitzen diote, eta izenaren sorrerari begiratuz gero, aproposagoa dirudi azkenekoak. Izenak izen, hona izanaren berri, aiton amonen ahotik:

Sorobarrengo aitona Joxantonio Sukuntzak esana: «**Neskan Pagoa**» esaten zaiona, **Baztarlako lepotik** bera yoanda dao, aundi ikaragarrie! Leitzalarretik eldu ziela, neskatxen batek esan izan bear zun, beak nai zun mutillekin ezkontzeatik, eun beten botako zula aizkoraz, ta artatik patu zioan «**Neskan Pagoa**». Deskuidoa, asi balitz, be denboan izandu zun eunik luzentxona ateako zit Zion!!»

Benito Luxeak esandakoak: «Abadebordako neskamengatik yarrie zun ark izena: «**Neskazarran pagoa**». Nik ezautu nun Abadebordan neskame. Ure zen Aisoko Tellentxoneko «**Akerra**»n alaba, edozein lanetan aitzen zen neska. Kontue atera zazo: ure eurre botata prestatzen, ta nausie beiekin karretoan ibiltzen emen zen. Pago aundie zen ori, ta neskazar orrek allatu emen zun, eun baten botako zula, berak nai zun mutillekin ezkontzeatik. Andik aurrera «**Neskazarran Pagoa**» esaten zioan. Pago ori zen Baztarlatik goitik bera yetsi tte, lendabiziko bidagurutzen: bide batek aurrera seitzen zun da bestek bera, ta antxe zen biden ondo ondoan».

Musungo aitona Fraxku Sagastibeltzari jaso: «Josus! majiñe bat aldiz pasatue nao pago aren ondok. Biden ixkin ixkiñen zen. Pago aundie zen: bi kana igoal izaan zittun. Neskazarren bat Abadebordan emen zegoan neskame, ta beak nai zun mutillekin ezkontzeatik eun beten bota baietz iñ emen zun desapioa. Pizkor ikaragarrie izan bear zun neskazarra. Auzoko mutillek: Abadebordakoak, Domingobordakoak, Barrenekoak, Portolonak eta... otso dantzan ibiltzen emen zien **Esalakorteko belatsoan**, da denak artute aiden erabiltzen emen zittun».

Emakume bizkor hura Abadebordan neskame zegoala, ume koxkorak ziren **Silbia Gaztañagana** eta **Joxakin Kaxkantakoa**, eta gogoan omen dituzte haren ibilerak. Langile amorratua omen



zen, eta oso bizkorra gainera. Mina egiten omen zitzaion aldizka, «**ihisatsa eskun artu ordureko**» esaten zedan Joxakinek; baina aldeaz aurretik igertzen omen zion, eta mina egin baino lehen etzan egiten omen zen lurrean.

Benito Luxeak esan bezala, Aresoko Tellentxoneko alaba zen Urdola aldeko pago haundiari ospea eman ziona. Honatz zer dion haren jaiotzako paperak Aresoko elizan:

En veinte y tres de Mayo de mil ochocientos noventa y ocho el infrascripto Abad de la Parroquia de la Ascension de Nuestra Señora de esta villa de Joriz, bautizó en esta mis Parroquia una niña que dijeron haber nacido en las cinco y media de la tarde del día anterior, hija legítima y de pleno derecho matrimonial de Juan Bautista Serquena, natural de la de Leiza, y de María Martina Machin andiagena, de la de Leiza, su mujer, sus feligrues, se le puso natural de esta villa, su nombre, sus feligrues, se le puso por nombre María. A los padres que son Antonio Serquena natural de la de Leiza, ya difunto, y Juana María Machin, natural y residente en esta villa de Joriz, y María Juana Aguirre residente en esta villa de Joriz y María Juana Aguirre residente en esta villa de Joriz, de Joriz, ya también difunta, natural del lugar de Joriz, natural de la de Joriz, sus padrinos D. Hilario Torres, natural de la de Joriz, sus padrinos D. Hilario Torres, natural de la de Joriz, Merchante, y Ana Juana Machin andiagena, natural de esta villa y residentes ambos en esta villa de Joriz, a quienes advertí la cognación espiritual y obligaciones y firmé.

D. Joaquín Ignacio Arayago
Abad.

Gazte denbora etxean egin, eta Barbararen aurreneko gizon zena, Ramon Zabaleta, 1914ko martxoan hil zenean, Tellentxonetik Abadebordara neskame etorria zen; izebattikia baitzuen Barbara. «**Martxo: luzeata mantsoa**» esateko ohitera omen zuen. Behar bada, etxean urtero oroitzen zutelakotz, Barbarari gizon zena hil zitzaioneko hilabate zoribeltzeko hura. Abadebordatik Iruñera eraman omen zuten osasunez makalduxe zenean, eta han hilen zen Hospitalera eraman da belaxe. Honatz nola oroitzen duen, gaztetan auzo eta gerora koinatordeko izan zuen Aresoko **Aranaldeko amona** Katalina Rekondok, Leitzako Boxekanbordako alaba izandua, bere 88 urtetan:

«Nere gizon zenan arreba ordekoa zen. **Maria** zun izena. Atte Leitzeko **Peusteneko** bordatik **Tellentxonera** ezkondu zun arek. Gizona il da, ama alabak bakarrik gelditu emen zien Tellentxonon, da alabangana ezkontzaz etorrie zun atte Leitzeko **Peusteneko** bordatik. Seme alabak izandu zittun lendabiziko andrekin. Semea jaio ta bela ill in zit Zion, da alaba bizik atera, baño urere gaxoa etzen ongi ibiltzen, miñe itten zit zioan noiznai, ta etzen burutik ongi jantzie. Baño neska langille amorratue zen, da zebatt gizon baño pizkorragoa. Gure ama zena Abadebordako Barbaran lengusu propioa zen, da gu askotan joaten giñen ara, ta sekuleko lanak itten zittun **Maria** orrek. An aspertzen zenen, pixkoat etortzen zen Tellentxonera, baño abudo joaten zen berriz ara; an nonbatt ongi itten zioan, da pozik joaten zen.

Maria ori umea zela ill zitzaion ama, ta andik belaxe atte bigarren aldiz ezkondu zen lakuntzar batekin. Lakuntzar orrek aizpe **Sutegin** emen zeuken, da areangana bixitara etortzen zenen nonbait aixkiantza in zuen, da artatik ezkondu. Nere amaiarroa zen ori. Bost seme ta lau alaba izandu zittun. Zarrena, nere gizona zen, **Batista Sukuntza Etxarri**, biarrena **Frantziske**, irugarrena **Manuel**, lauarrena **Katalin**, boskarrena **Mikela**, seiarra **Serafiñe**, zazpiarrena **Karlos**, zortziarra **Inaxio** ta gaztena **Juanantonio**. Azkenekoa lengo pestatan urte bete (1992ko Amabirjin abuztuokotan) il zen Tellentxon bordan. Arekin akittu zen sukuntzarren kasta Tellentxonon».

Bizkaian, Nabarnizko pagoa. Luxia duzu gaineko hori, 1949an. Sei metro ba omen zituen pago sonatua

Baina, besterenak beste, Maria Sukuntzaren izpirituak, ateraldi zelebre baten testigutza bitarteko, gure gogoan segiko du «**Neskazarran Pagoa**» delako tokizenari lilura historiko xoragarria emanaz. Nork esan hartaz inor oroituko zenik? Niri ordea izugarri gustatzen inuxente paperan igarotakoen kontuak berritzea. Ohorezko haundikeria zuriak ez bezala, bihotza ukitzen baitizute.

INTXAURRAK: Kasik etxe guzietan baziren intxaurrek, eta zorionez oraindik ere badira askotan. Baina jendeak bereziki oroitzen dituenak Maxurrenekoak, Astaitza-gakoa, Agerrekoa... Izanen dira beste asko ere. Denborarekin bildu nahiko nituzke hemen ixilean gelditzen direnen kontuak, baina gaurkoz ondoko hauekin konformatu beharko duzu:

Astaitzagako intxaurre Mikelaren esanera: "Eder ikaragarrie zen. Pentsazazo, iartute ondoren e, millonerde pagatu ziguen iaia ta! Oain dela irulau urte saldu giñun. Ementxe zen atetan bertan. Matte aski giñun guk ure, baño beti erostunek gañen, da paken ez ziguen uzten, da azkeneako saldu in bear izandu giñun. Azeptiar batek eraman zun 1990ko udazkenen. Trabes aundik in bear zittula esan zun.



Beasainen, Arriarango intxaurre sonatua. 1932ko urtezar eguanean elurra zela bota omen zuten. Eliza eta apezteixe bitartean zen. Gerri inguruan lau metro. Aletan berriz, hamazazpi anega eman zituen urte batean. Eibarko armerira joan ziren haren zurajeak, eskopeten kulatak egiteko.

Berreunen bat urte izaan zittun ark, etxen kontra samarren zen, tellaturri kalte itten zion, baño gañekoan etxeri edertasun ziu-garrie ematten zion, da itzal ederra; askotan eotten giñen aren azpin. Gero aren ondoan, beste bat sartu zun semek, Batiastek, eta atte semek ematten zuen elkarren ondoan. Atte bota zuenen semea or gelditu zen da, ai de dezente kozkortzen".

Agerre bordako intxaurre. Nahi bai, baina ez dut aukera-

rik izandu, intxaurre eder hari buruzko datu zehatzak jasotzeko. Ez baita inork uste bezain erraza izaten. Bi aldiz Agerreborda bertara joanda huts egin dut, eta daturik ezean, Benito Luxeari jasotako kontu honetxak balio beza oraingoz: "Gu **Laxaron bordan bizi giñela, sei saski aundi intxaurre kendu izandu giñizkion. Yai atsaldia izaten giñun ara yoateko, ta dozenerdi bet gañera iotzen giñen, da lendabizi bota lurrera arrapatzen giñuzen guzik, ta gero dena urkildute sei saski aundi bete giñuzen. Intxaurre ikaragarrie zen, da gero intxaurre zurek diru asko itten zun garaie etorri zen da, ordun bota zun nausik". **Etxeturikoa** omen zen nagusia, **Gegrorio Iribas Yeregi**, eta hark saldu omen zion **Pako Hernandezenari**. Noiz bota zuten, zenbatekoa zen, nora eraman zuten?... Argituko dizut egunen batean.**

Maxurreneko intxaurre sonatuei buruz jasoak berriz, hona **Luis Lasarte Unaine**koaren ahotan: "Or zien iru intxaurre aundi, izugarriko intxaurrek, igoal izanen zittuen ogeitamar metro altun. Sekuleko intxaurre pillek ematen zittuen. Gero bota in zittun nausik, **Bizente Saralegik**, oaintxe dela berrotamarren bat urte, ta material aik eraman zittuen Valentzire. Ordun emengo intxaurre asko Valentzire eramatten zittuen; an muebleri asko baitzen. Ni ordun joaten nitzen Zaragozara esaminatzera, ta akordatzen naiz nola ikusi nittun Maxurreneko intxaurren materialak Zaragozako estazio baten bagonetan kargatuk Valentzireko".

Inguruarte zaharrean edo **Kakazelai** modernoan ere baziren Maxurreneko intxaurrek, eta hara behin Domingo palenkari-nari han gertatua, **Isidro Dendarine**koaren ahotik: "Nere urte betetzea zen ordun, urrin 6a, beatzi urte bete nittun eune, ta amari esan nion enula eskolara yoan bear. Goan dauket attuna ta bik **Goiko Errota** aldera giñizela, nola in giñun biden topo **Domingo palenkarinakin**, arpegi guzie odoldukin eldu zen **Erasuneko estarta** barrera. Maxurreneko intxaurre gañetik erori te surre ausi zun, da bere denborako marka gelditu zetzion: boseolarik bezela, txato txatoa izaten zen. **Apezenen** bizi zien ordun Domingo ta". Domingo Retegi Sagastibeltza 1919ko abuztuaren 6an jaioa zen, eta Isidro dendarinekoa berriz, 1920ko urriaren seian. Kontuak hola, 1929ko urriaren 6ko gertakaria behar du horrek. Zoribeltzak sorgindua zizun, itxura denez, Inguruarte. Intxaurrek ezezik, sagarrak biltzekoan ere, bai baitzen lehenagotik gertatutako sorginkeria, leit-zarren artean hagitz ezaguna egin zena. Jakin nahi baduzu, erosi zerbait **Maimur** liburudendan, eta gratis emanen dizute kontuaren papera.

URRITZAK: Intxaurre ez bezala, urritza, bertakoa dugu; euskaldunagoa beraz. Arbola izenetan soinu-erederrenetakoa du nere belarrirako, eta izana ere liluragarria. Garai batean sasira ateratzen zen jendea negurako hur biltzera. Leitziatik joera haundia zuen jendeak, **Larraun** aldera hur biltzera joateko. Sinale ugari zela alderdi hartan. Baina borda ingurutan ere nonahi izaten ziren urritzak. Erasoteko ospel aldean endemas. **Kordaun** aldean izugarri. Eta zer esanik ez **Tutene** aldetik gora: **Txopillo**, **Ontsalone**, **Urriztimiltxo** alderdi hortara. Izenari begira: **Urrizti + moltxo**. Halaxe baitzuen bordak izena, inguruko urritz moltxoaren ugaritasunetik hartua, joan den mende akaberan **Urriztimiltxo** buhurtu zioten arte. **Urrizti** bakarrik ere ageri da zenbait aldiz. Honatx nola hasten den 1843eko uztailearen 3ko jaiotz agiri bat elizan: "En la casa llamada **Urrizti** nació... Jose Fermin Cestau...". Urriztimiltxo palenkari zaharraren anaiaren jaotzako agiria duzu. Geroztik 150 urte iragoarren, izenari zentzu ematen segitzen du inguruak; urritzi moltxo erruz baita oraindik alderdi horretan, Tuteneko etxaburutik hasi eta goiko Harpausotaraino. Zer esanik ez berriz, hortik haruntz **Korteko borda** edo **Apeztegi** aldera jo ezker. Urritz beltza da gailen Erasoten, baina zuria ere bada franko. Beltzak baino zuraje zailagoa eta apainagoa du zuriak, akuilu, kider, edo dena denekoak egiteko.

Baina Erasoten ezezik bestetan ere bada urritzik aski Leitza. **Miltxonbordan, Arbillagan** erruz, eta **Ganbaran bordatik** beherako zokotan ere bai asko **Auzmendi** alderaino. Hara alderdi hortako pasadizo batzuk **Arriango Lontxo Lasarteren** ahotik jasoak:

"Gure atte zena, Antonio Pillipenakin de, Lesakeneoakin de, ola ibiltzen izan bear zun gaztetan, ta yai beten pentsatu emen zuen Sobarrenera yoan bear zuela. Neskan bat edo beste izan zien da, ak zeuden lekure; ordun oittera aundie baitzen neskaxengana yoateko.

Ala, ezta kint neskakin deus iñen zuen baño, gaben illundute Sobarrendik atera dienen, sekuleko intxaur pille atarin te, ze pentsatu due: intxaurrek ostu bea ittuela!

Io men die intxaur gañea ta, kolkoak bete omen dittue ta, yes-ten ai diela, batei ze pasa zaio: atorra gerritik aterata intxaur guzik eskapatu! ta, kin kan kon kon kon! sekuleko soñuk ateatzen txabol-olan gañen. Usu demonio aldeñ omen zuen etxera, intxaurrek bertan utzite!"

"Beste baten, Arbillaga yoan omen zien neskaxeta, ta an'e gauze bera. Atsaldea neskaxekin pasatute, iluntzen etxera abittu zienen beittik gora, sekuleko ur pille bide baztarretan; urritz asko izaten baitzen Arbillagan, ta oañik'e izaan die bai an, denak bota ez badittue.

Ala biñipiñ, asi die gure atte zena ta mutil orik urritz gañea iota ur biltzen, da bide ixkiñ samarren izan arbola, ta gora io zien-zen, kargakin zañetatik iraulitte ben urritzen lurrera denak!

Ango adar soñu ta zalapatakin zakurrek'e moittuko zien da, lasterka aldeñ men zuen Zuarrin'en gora. Gero, arrapatu zittuenak eseritte yarrite Zuarringo gañen illargitan kurpilddu te, etxera etorri omen zien."

KOTABORDAKO GEREZIA: Aurten ez du gereziak bate-re urtabe ona izandu, baina, haimaka jana da Leitza jendea, nola



Ordiziko San Isidro etxaldeko sekua. Kamioak harrapatu duelata, arbola bota? Ezta pentsatu ere! Harkaitza bezala zulatu eta azpitik egin tunela. Oraindik holakorik! Munduko arbolarik luzeenak klase honetakoak dira. Guzien artean ordea, bi omen dira Kalifornian ikusgarriak. «General Sherman» izenekoa bat, hamaika metro zabaleko ohola eta larogeitabost metroko gerri ingurua duena; eta «General Grant» bestea, amar metroko ohola eta larogei metroko gerriarekin. Aurrenekoak 3500-4000 inguru urte omen ditu. Eskerrak hitzegiten ez dakien, a ze kontu pila bestela, bere bizitza guzia kontatzen hasiko balitz!

herritar hala bordari. Mutikorik lotsagabenak eta aisago. Herrian azkeneko urtetan izan diren famatuenak **Gotzaundikoak** eta **Unainekoak**. Gogortzaundikoa **Joxe Astibia botikario zenak** bota omen zuen, denak herriko mutikoak jaten zizkiotela eta, ezin sufrituz egoten zelakotz. Unainen badira oraindik. Baserrietan ere bai nonahi. Astaitzagako Mikelak hala esan dit: *"Geize ikaragarrik izaten zein Errementanen. Beiñ goan dauket gu ara yoan yai atsalde baten geize bille, ta Joanito, bertako semea, gu baño zartxegoa, - Aisoko Ibiurre ezkondu zen gero- nola erori zen, da kolike inde gaizki zegoala ta, nola eraman zuen Tolosara"*. Nonahi baziren gereziando bikainak: Gorritinen, Astibi Goikoan, Aresoarten... «Ango txertoa badut nik 1941ean ekarrie» esaten zidan Luis Unainekoak. Baina, besteak beste, Kortabordako gerezi haundiak utzi zuen hutsa, nabaria da **Sakulun**. Honatx, 1994ko maiatzaren 8an, Martin Oronoz Zabaleta, 80 urteko aitona, Kortabordako sukaldaren esanak:

"Lengo emengo etxeoandrea zen Fermina (Arbillaga Astivia, egungo Txokoko caballerotarren amuna zena), ta ark emen zun oittera, aren egune allatu arte iñori ez utzekoa geize gañera iotzen. Ala, San Fermin eun arten ez emen zen iñor iotzen geize gañera, da San Fermin eunen erri guzik libre. Sekuleko yende pillek etortzen emen zien geizek eramatea. Mutikozkorrez estalie eotten emen zen geizea.

Gero, lengo maiztar aik Txokora yoan da, guer torri giñen, da oittera berari seitzen giñion. San Fermin euna allatu arten kieto, ta ordun nai zunak libre. Etxen ondoan izaten zen, itsasaldetik; Etxea baño auntzaxegoan, baño, tellaturi etzion bate mesedeik itten, ostoa gelditzen zetzion, ta ostoa kentzen izaten giñun lana.

Baño ure ongi tratatu balitz, urtero alea kenduz, oañik bizi-ko zen. Gero adarrak iartzen asi zekion, da baten batek geñetik eroritte lepoa ausi goal da, moarroto iñ giñun. Morroak beak ikaragarriek zittun, da gero ondoak, bi mille kilo pasek izaan zittun. Angel Alduntziñek erosi zittun. Kosta zetzium erki ateatzen. Iru idi parekin Olaberriko zubireño eraman, da andik aurea mützen ez! Ez baitzen oañik kamionik, eta Basomenen obran ai zien ordun, Joseinazio zena ta orik, eta arentzat lanen ai zen autorroto bat etorri zen Olaberri eurrekin, da aretxek eraman zun geize aren ondo arrastan. 1950 inguruko kontuk die orik.

Ikaragarrie zen arbola! Etzen anpolaiie, baño anpolaiiek ainatsuko alea zun. Anpolaiak izateito aleka, baño ark modoak baitzittun, matsa nola izaten da, postura beren sekuleko mordoak. Aren txertoik ez yasoa izateek nik pena".

SAGAR BELTZAK: Garai batean etxe gehienetan izaten zen sagarra. Baina batzuetan nabarmen gehiago: Bordaberrin, Mandaxeinbordan, Errezumen, Gorritenen, Miltxon Bordan, Pastainen, Joanabordan,... **Astaitzagakoa** omen zen Leitza zen sagar beltzik haundiena, bi gurdí sagar ematen omen zuen. Beste sagar beltza **Urbitakoa** omen zen famatua. Leitza zen sagarrik gehiena Urbitan izaten zen, eta gero **Frankin** atzenaldera. Ez luzatze-ko Urbitakoaren berri bakarrik emanen dizut, bertako alaba izandutako **Mikela Labayenen** ahotik: *"Ordun etzen etortzen onera fruktatarik orain bezela, eta Urbitara yoaten zen sar eske yendea; sar denboan ikaragarriko yendek yoaten zien erritik. Guk sekuleko sar pillek izaten giñuzen, errin zen sarrrik geintxona izaan zen ordun Urbitan. Etxe askotara partitzen giñun. Anaiek sar biltzen goial eun guzin; bi alkandora bat besten gañetik yantzitte, kolkora biltzen zuen. Kolkora betetzen zuenen poleki poleki yetsi tte erreure ustu te, sar gañera berriz. Anaiek biltzen zuena guk bi aizpek partitzen giñun etxetara. Saskizabala izaten giñun erreun tamañakoa, ta bi aizpek txandaka eramatten giñun burun artute. Batek erdibidera atera, ta bestek etxetan partittu errin. Erregue bi peztan saltzen giñun. Baleztenan etxera, Joxemari Amerikanoan etxera, Etxeberrira, Danboliñ etxera,... Baño sar klase asko negureko alt*



Mujer recogiendo manzanas.

xatzen giñuzen: urtabie, udaresarra, errezil sarra, mandaburue, frantzes sarra, kanpanluxea, garmendie, ta olakoak.

Joxemari Amerikanoantzako sar asko ekarri zun **Martin Larrazek** andik. Saski aundi betekin yoaten zen saarreta, ta askotan bildue izaten giñun, baño anaiek etxen etzienez, Martiñek berak biltzen zun. Trebea zen sar gañen ibiltzeko, baño oittera aundik etzun, da askotan lurrera erortzen zezkitzion. «Motell, denak botatzen ai aiz» guk beittik. «Ezto inporta, beittik bildduko ittot; bela yateko kolpa batzungatik ezto inporta». Majiñe bat sar Urbitatik eramana da Joxemarin Palaziora.

Arbola bat, sarbeltza, ikaragarrie izaten giñun, gurdike sar ematten zun ark, ale errak izaten zittun, gordiñik yateko gazi samarrak, baño erreta yateko ta aitz onak bai. Oso matte giñun sar ure. Etxen aurrekalden bertan zen, da oaindik indar ikaragarrin zegoan, baño denak atzena bear izaten due ta, aizete batek bota zun. **Aizete ikaragarrie** izandu zen ordun: nonai bota zittun tximinik. Unainen berreun kilo ta geioko losa tximinik artute eraman zun sekuleko bidetan aizek. Ordun irauli zun aizek trena Zumaien; bi bagoi zubittik bera yoanda, maistra bat eta eztakit zein geio itto zien. Ori zen 1941ko aizetea. Atsaldeako asi zen indartzen, ta gaberrako gero ta geio. Gau artantxe bota zun gure sarbeltza. Guk gau artan ez giñun loik iñ. Aizek ateatzen zun karrazikin, ematten zun arrike ai ziela ateyoka, da biamon goizen sarra erorie. Pena erra eman ziun! ”.

ALIÑEKO LIZAR ZENA: Lopeneko eta Tolatxeneko atari aldera lizar modoska izaten zen lehen, baina Aliñekoa zen gelditzen zen azkenekoa. Azio izugarria egin zioten lizarraren jabeek. Ez ziotela botako esan, eta hurrengo begiratu zuenerako eskabadorra zarrez hartuta etzana arbola! Berenak eta bost aditu omen zituzten alkateak, Saralegik eta gainera gainekoak, baina alferrik! ordu-rako egina baitzuten azioa! Esan didatenez, bota beharta ere, gizalege hobexegorekin bota zitekeela uste dut. Ezagutu ere, inoiz ezagutu ote du Leitza azkeneko berrialdi honetan baino zibismo eskasagorik eta langite zakurragorik. Nere oroitzean ez. Baina alferrikako kritikak alde batera utzita, bihur gaitezen «**Aliñeko Lizar Zena**»ren animaren alde otoiitz egitera. Honatx **Inaxi** eta **Joakinatxo** astibiatarren ahotik jasotakoak:

“Badie 75 urte gu onera etorrik bizitzera, ta ordureko emen zegoan lizar au, onek izanen ditto 80en bat urte. Gure atte zena 1934an ille zen, da ordureko arbola aundie zen ori. Lizar orrek laroeita geio urte bear zittun. Ori Aliñeko ateria zen, ikultureko

sarrera ortik izaten baitzen, da or iru lizar zien leno, ta ori zen iruetan zarrena. Beste bik gaztegoak zien, Arroko attunari erositte ekarri zittun gure atte zenak, da aitako bat gure anaiek galdu zun aizkorakin da bestea berriz Diputaziokoak bota zuen kamioara traba itten zulako. Gero, lizar aundi onekin gauza bera iñen zuela ta, pentsatu zun anaiek, kamio aldera zittun adarrak moztea; ta ordun geldittu zen barrango aldera bakarria zittula adarrak. **Pako Billartak** moldatzen zun urtero arbola: primaberan moztu bear zien adarrak moztu te mimo guzik iñez ark txukuntzen zun.

Pareta ori in zeneako arbola orik or zien. Atte il da belaxe **Lontxo Zubiturren** attek iñe da paret ori. Ure sartzen zen kamio baztarretik goitik bera ikulture, ta urik ez sartzeko iñe izaten da paret ori. Yakiñe, ordun lizar ori pareta kontran geldittu zen, da gero denborakin pareta yotzeño azi zen. Guk oaiñ arte ez giñun ainbeste aittu, baño oaiñ denak gauze bera esaten digue: “**nos han quitau el árbol de los enamoraus**». Pareja ta yende asko eotten baitzen or eseritte. Puntu politte baitzen erriko pasakari guzik ikusteko, ta gañea itzal ederra ematten baitzun lizarrak. Yende asko etorri zau pésamea emattea. Denak gauze bera esaten digue: «que pena nos ha dau ese árbol». Ta guk ze esan beau: «más pena nos ha dau a nosotras!». Egie da, lizar orrek zaiñ ikaragarrik zittula ta zañek azi alen pareta okertzen ai zela”.

Adarje zabalekoa zen lizarra, eta auzoko mutikozkorrek gainera igota kartetan aritzen omen ziren, albaiteoaren semeak eta **Bernabenak** endemas. Hala esan dit **Jose Luis Huartek**. Aliñebeiko **Pello Morrasede** egiten omen zien mahaia, ohol batzurekin lizar gainean. Nere oroitzean ordea, lizar gainera igo eta, azpian esertzen ziren nesken bular barrenak, endemas eskote iriki samarrak erabiltzen zituztenenak, hobekixago ikusten saiatzen ginen, goiko ostoa tartetik behera zelatan. Oi nola aldatu diren ibilerak eta nesken jazkerak! Aliñeko lizarrak hitzegiten baleki hamai-ka modutako amodio kontu esanen litzuzke!

Bai, gure maitasun kontuak jasoko dituen arbolarik gabe gelditzen ari gara herri barrenean. Baleztenan baratzen gelditzen zaizkigu azkeneko arbolak. Lizar eder bat, indigaztaina, platanoa, eta Atlasko zebro haundia. Hantxetik jotzen du hontzak gauero bere negarkanta, esanez bezala: «**Hauxe beste arbolarik ez didazue utzi, gauero leitizarren loa gozatzeko, eta hau Afrikatik ekarria alajainkoa. Lotsarik ez duzue!**». Ez horixe. Badakit pestatan ikaraturik Oialdera joaten dela oporretara, eta bejondiola. Oialdepeko herri honetan ez baita izanen giro.



Aliñeko alabak balkoben: Inaxi, Joakinatxo eta lehengusua, 1944ko urriaren 12an. Atarian aita Miel Anttonio Astibia zaharraren ondoan sartutako bi lizar

~~1994-6-23~~

1994-6-23


NATURAREN EGOERA

Bada denbora asko jundea garbi, tenten... ikusten nuela. Baina denboraen poderioz dena aldatzen joan da. Orain dela urte asko, que lizitzarabio beha nezkoa zen airea, gogo eta garbia zen. Eon aundon bega la dena aldatuz doa. Nik urte asko eta asko ikusten ditut zabor usaitue hoiets lurrera botatzen eta urteak latsarik ez baita helduak ere. Hoiets zera este dute "zabor lotegatik ezer eraz ez dela pasatzen. Baina, zabor bat eta beste bat eta beste lotekin pila bat litziz diaa. Horekin netu raren huiotza gptu izngq da eta baita quia ere.

Denak garbi litzizen lagara luzerango eta osun- truaqo lizi qantzike. Badira ehiztari asko animaliak hil nahirik dalitzanak. Baina, hoiets, animaliak izngq lalira, eta beste lalen lino lotitzeg hiltzea edo lizia gal tza qestaturko al litziziete? Hori da, beraien hiltza ez qesta tu eta besteak hil nabri. Hau al da qizatiok deubagun farrak!! Horela espezien artean degain nekta hausten joango gara. Hau dela eta sortu ziren ekologista talde lotzuek. Eustkadin bada bat. Bere helburuak Itzigro urtegin ez egitea da. Bai al dabizue urtegi bat egiteak zer kalte ekar ditzakien? Orduan, zertareko egin, bere hala que huiotza lator!!

LEITZAko - FESTAK

Leitzaoko festak Abuztuaren 11an dira.
 10an asten dira eta 15an bukatu. Denak
 blusa beltza jartzen dute. Aurrerakoak
 direnak eskudo bat eramanen dute.
 Zaranga ibiltzen da kalek. Buruandiek,
 erpaldoriak, zerenak, burrakak eta tira
 pitxonak iraten dira. Baina batez ere
 oso umore ona.



TWISTAK

Behin batean Lazkao-tiki^o motam zihada,
holizok esan zion:

-Aho
-No, bago



Baztanoan gizon hotzab bat beru ahatearekin eta gizon batek esan zion:

- Norra zozaz txerrei horarekin?
- Baxka, baina hau ahate da.
- Ez muntzen zurekin hizketan ezi, ahatearekin baizik.



Urte batzuk berrean zeuden, burua ahatek aterata, maizak esaten die:

- Kontuz postarekin-kin-kin-kin!



Behin gizon bat txerredendara joan zen. Esan zion saltzailera:

- Bai al duzu loto bat?
- Bai hau da egokiena.
- Zeba? Zer du berezia?
- Bi eskutun soka baina du. Ezkerreko sokatik tira eginer gero, katalanez hitz egingo duzu. Eskutetik tira eginer gero, euskaraz.
- Eta bihotetik tira eginer badiot?
- Zozgo halakoa erori egingo maiz! - erantzun zion lotoak.

LEIZAKO

ESKOLA

YIMIAIA

TXISTEAK

~~ALUBA BELAZARAKO~~

Eroetxe nagusiak galdetzen dio ero bati:

-Zuk sudurrik ez bazenu zer gertatuko zitzailen?

Eroak erantzun:

-Ez nukeerik ikusiko!

Nagusiak:

-Zuk sudurazekin ikusten al duzu ba?

-Ez baina, betaworekoak sudurazekin auzten ditut.

* * * *

Behin aitona bat katean ziholdea askurea zekukan buruan eta askuzen hasi zen. Handik geroago gutxi bat arakatu zen kateetik, eta galdetu zion aito nare!

-Aitona txapeta kenduta egiti ezazu aska.

Aitonak aduan:

-Zuk ipuriaz askurea duzunean galdetok jeltuta egiten al duzu aska?

* * * *

Behin Juanito buziketan zebiteen, opatzak eman zion:

-Utzi buziketa eta zabal ez ezabteko.

Eta Juanitok erantzun:

-Baina nork zainduko dit buziketa.

-Espiritu Santuak — eman zion opatak. Eta ez ezabteko Joan aien.

Aitaren ezabteko nazi aien:

-Aitaren semearen uten eta amen - Juanitok.

-Eta. espiritu. Santua - opatzak

-Buziketa zaintezi- Juanitok.

LOREA ETA IDOIA

Ileapaindegia
eta Solarium-a

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telf.: 61 09 07 LEITZA

JOSE MARIA ETXEBERRIA

GIZONEZKOENTZAKO
ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 82 • LEITZA

KORNIETA ELKARTEAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

EMBALAJES ERVITI, S.L. ZERRATEGI MEKANIKOA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 55 00 08 LEITZA

MAPFRE

MUTUALIDAD DE SEGUROS
Una organización a su servicio

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 99 LEITZA

PINTURAS OROPAL F. J. SAENZ

PINTURAS INDUSTRIALES Y
DOMESTICAS

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Manuel Lasarte, 5 • Tel. 51 00 49 • LEITZA



URTO KARROZERIA

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK

Jesús Azurmendi Jauregi

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Kamineros etxea BERASTEGI

Telf-ak. (943) 68 32 43 y (948) 61 06 64

YONE ETA INMA

PESCADOS Y MARISCOS SELECTOS

Jai zoriontsuak opa dizkizue

C/. Elgoyen, 20 • Tel. 61 07 33 • LEITZA

MERTZERIA DENONTZAT

Jostun tresnak, galtzerdiak eta
azpiko arropa

Pesta onak pasa ditzazuela

Tel. 51 05 61 • LEITZA

PILI

Janari denda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Patxi Arrazola, 9 • Tel. 51 05 63 • LEITZA

ASTIZ ZURGINDEGIA, S.L.

Sukaldeko eta bainuko altzariak

Pesta onak opa dizkizue

Tel. 51 02 85 LEITZA

TXOKO TABERNA

- Pintxoak Giro alai
- Otartekoak
- Kaxuelak

Gauetan "Karaoke"

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 27 LEITZA




FOTO ULAZIA

Sta: Cruz, 43

Urbanización Zizur

Tel. 18 33 01

Jai zoriontsuak opa dizkizue



ADUR
TABERNA

- Otartekoak
- Kaxuelak
- Era askotako pintxoak:
 - Olagarroa
 - Grabak
 - Zizorra sagardotan...

Elbarren, 16

Tel. 61 08 64 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LOCAL SOCIAL MENDIGORRIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Patxi Arrazola LEITZA



Urepel
kirolak

EHIZA, ARRANTZA, KIROLAK eta BIZIKLETAK
(TAILERRA)

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

Manuel Lasarte, 5 LEITZA

Tel. 61 09 13



- EGUNKARIAK • TEXTU LIBURUAK
- FOTOKOPIAK eta FAX • OPARIAK

Herriko Plaza. Tel. Fax 51 01 46 LEITZA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ELKAR ILEAPAINDEGIA

Pesta onak opa dizkizue

LEITZA

LANDA TABERNA

GIRO JATORRA ETA MUSIKA EDERRA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

RODRIGUEZ ETA ERASO LANTEGIA



RENAULT zerbitzua

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 59 Elgoien kalea, 15

CONSTRUCCIONES SAGASTIBELTZA Y ARTOLA

Era guzitako igeltsero lanak

Elbarren 86, 2.º ezker

Tel. 51 02 65 - 61 07 24 LEITZA


Jai zoriontsuak opa dizkizue

ARDOTEGIA
LEITZ

ARDO ETA LIKORETAKO BILTOKIA
INSALUS, SAN MIGUEL GARAGARDOA
ETA COCA-COLAREN BANATZAILEA

Festa zoriontsuak opa dizkizue

TEL. 51 03 33 LEITZA



**BANCO DE
VASCONIA**

*Leitzar eta bisitari guztiak
pesta goxo batzuk pasa ditzaizuela*

Tel. 51 01 38 LEITZA

"PITXIK"

PAPERDENDA eta
OPARIAK

Ongi pasa

LEIZARAN

KONTABILITATE ZERBITZUAK,
ENPRESA TXIKIENTZAKO
ADMINISTRAZIO LANAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 61 06 48 • LEITZA

STGASTI

TABERNA ETA JATETXEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 61 06 37 LEITZA

**IZOZTUEN ETXEA
CASA DE CONGELADOS
MARIA CATALINA ZABALETA**

Especialidad en croquetas, pimientos rellenos y
mejillones. Precocinados, mariscos y verduras.

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 80 • Tel. 61 09 22 • LEITZA

TABERNA, ERRETEGIA
MENDIZABAL

Txuleta eta bisigu erretan espezialitatea

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 22 Tel. 61 08 90 LEITZA

KAFETEGIA • GOZOTEGIA
NEKANE

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Se recogen encargos de tartas y pasteles

Tel. 51 03 28 LEITZA

ANA ARRANDEGIA

Eguneko arraiak eta izoztuak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Urrutizkina: 61 06 81

JANARI DENDA
ZABALETA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 04 28 LEITZA

"GAZTETXO"

Goxotegi eta jolas lekua
Jai zoriontsuak opa dizkizue

PAKO SARALEGI



CITROËN

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 04 90 LEITZA

PLAZA AUTOESKOLA

ASEGUROAK ETA GESTORIE
Pesta onak pasa ditguzuela
Huarte Gotzaia, 8 LEITZA
Tel. 51 03 38

**LEITZELARREA
AROSZTEGIA**

Herrería, carpintería metálica
Elbarren, n.º 58 Tel. 51 05 98
31880 LEITZA (Navarra)

Jai zoriontsuak opa dizkizue

**GARCIARENA
ARRANDEGIA**

Eguneko arraiak
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Elbarren, 72 • Tel. 51 05 90 • LEITZA

BIKOITZ TABERNA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Elbarren, 16 LEITZA
Tel. 51 00 72

EROSLE

SUPERMERTUÄ
Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 00 36 LEITZA

J. A. URKIOLA

Harategia, Urdaitegia
Idi haragitan eta hemengo Zekorretan
espezialitatea

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 04 67 LEITZA

**MADRILADORA
LEIZA, S. COOP.
LTDA.**



Jai zoriontsuak opa dizkizue
Estazioa, z/g LEITZA
Tel. 61 06 72 • Fax 61 08 46

BIOK JANTZIAK

Gizonezko, Emakume eta Umeentzako
jantziak

Elbarren, 32 LEITZA

Tel. 51 05 58

ARIZTIMUÑO ANAIK ERAIKINTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Telf-ak. 51 02 02 y 51 03 74
LEITZA

TXAPA PINTURA LEITZA KARROZERIA

Txapa konponketa, kabinan egindako pintaketa eta
labean egindako lehorketa, kolpe haundien
konponketa (bankada).

Leitze-larreko errepidean LEITZA

Tels. 51 04 60 - 51 05 58 (Etxekoa)

JESUS BULDAIN

Carnicería y Charcutería
Tratante de ganado

Teléfono 51 01 67

KOXME ZABALETA

Ultramarinos

Pesta onak opa dizkizuegu

Tel. 51 03 06 LEITZA

JOSE IGNACIO ARZALLUS

Harategia - Urdaitegia
Etxeko Txistorra

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 03 77 LEITZA
Tel. 68 30 42 BERAESTEGI

ORAIN ELKARTEA

Pesta zoriontsuak opa dizkizue

herritar eta bisitari guziei

LEITZA

Peluquería Eguzki

Asun y Lidia

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 34 - 1.º A
Tel. 61 06 49 LEITZA (Navarra)



MATERIAL
DEPORTIVO
KIROL TRESNAK
LEITZA
Tel. 51 00 87

GARAGE LEITZA

Amazabal, 29 Kalea
Klase guztietako berebil konponketak eta
erosi salduketak Peugeot-Talbot agentzia

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 04 66 LEITZA

"GARBI"

Garbigaidenda
Usaidenda eta
Jostailudenda

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 01 73

LIZARRAGA

HARATEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 83

ARAKINDEGIA

JATETXEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 00 52

ASTIZ

LIBURUDENDA eta PAPERDENDA
Eskolarako eta kiroletarako gaiak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 28 Etxeko tel. 51 04 05

GURATZ-MENDI

K. K. J. ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoien, 1 LEITZA

GAZTAÑAGA TABERNA

Otartekoak, pintxo beroak, kaxuelak

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 61 07 08

JOSE MIGUEL URKIOLA

ESNEKIAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

LEITZA

PERURENA HARATEGIA

Hemengo zekorretan espezialitatea
Urdaitegia

Tel. 51 01 64

Jai zoriontsuak opa dizkizue

HERBODIETETICA BELARRA

Janari denda

Elbarren, 35 • Tel. 51 01 92

LEIZA

Jai zoriontsuak, opa dizkizue, zorionak


CHAPA-PINTURA-KARROZERIAK GURIA

(P. KALDERON)

"Reparación de vehículos. Pintado en cabina, secado al horno". Pinturas nacaradas-perladas.

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 55 • LEITZA



Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elgoyen, 6
Tel. 51 03 75
LEITZA

ZABALETA OKINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 04 68 LEITZA

TALLERES LAZCANO

Venta y reparación de todo tipo de automóviles,
maquinaria agrícola, bicicletas y motos.

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Gorritaran, 41 • Tel. 51 04 04
LEITZA

SUCESIONES DE JOSE GOMEZ

COMERCIO DE TEJIDOS
Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 01 30



VANPAC, S.A.

(Vasco Navarra de Papel y Cartón)
PAPER ETA KARTOI BERRESKURAPENA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tolosako errepidea, 2Km-an
Tel. 51 01 61 LEITZA

DISTRIBUCIONES

ARRARAS, S.L.

Tel.: 61 08 88
Móvil (908) 17 96 99
LEITZA (Navarra)

GIMNASIO



GIMNASILEKU OSANE

- Sauna • Gimnasia mantenimiento
- Gimnasia correctiva • Aparatos musculación • Recuperaciones

Mens sana in corpore sano

Elgoyen, 4 LEITZA

AZPIROZ ETXEA JANTZI DENDA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 02 46 LEITZA

GREGORIO SAGASTIBELZA

Constructor y Albañilería
en general

Jai zoriontsuak opa dizkizue
Tel. 51 00 59 LEITZA

Distribuidor oficial:

CODORNIU
KELER
BODEGAS Y BEBIDAS
BETELU
KAS

FOTO
MUGICA

ARGAZKIAK


C/ Obispo Huarte
Tel. 51 04 40
LEIZA

VIDEOS



Reparación de vehículos
Chapa sistema CAR-O-LINER
Pinturas HERBERTS STANDOX
Mantenimiento y revisiones

TALLERES MIKEL



SERVICIO GRUA • SERVICIO OPEL

TEL. MOBIL (908) 67 20 41

Ctra. Leitzalarrea, s/n.

☎ 61 08 73 • LEITZA

CARLOS SAGASTIBELTZA VILLANUEVA

ARQUITECTO TECNICO

Proyectos • Presupuestos • Reformas •
Control de Obras • Mediciones de terrenos
• etc.

TELEFONOS

Oficina: 61 06 77

Domicilio: 51 03 90

Movil: (908) 17 96 60



HOTEL BASA-KABI

bautizos • amplios comedores • salones
• amplio parking • piscina • alquiler de
caballos

• cocina selecta • comidas de empresa •
bodas y banquetes • comuniones y

Alto de Leiza • Tel. (948) 51 01 25
31877 LEITZA

ITURGINTZA
GAZTELU, S.C.L.

- INSTALACIONES DE CALEFACCION
- FONTANERIA EN GENERAL Y GAS

Elgoien, 32
Tel. 51 00 86
Fax 61 08 56

31880 LEITZA (Navarra)

LEITZARRA TABERNA

IREKITA GOIZEKO 7,30ETATIK
Ongi ibili kanpotarrak eta ongi pasa bertakoak

Tel. 51 03 52 • LEITZA



TRANSPORTES

TALLER DE CANTERIA • TRABAJOS EN PIEDRA Y MARMOL • REVESTIMIENTOS DE FECHADAS DE PIEDRA • ARCOS, ZOCALOS, ESCALERAS • FOGONES "ESTILO VASCO"
• CRUCES Y LAPIDAS • CHIMENETAS Y TODA CLASE DE TRABAJOS EN PIEDRA

Les desea Felices Fiestas

Tels. Taller 51 04 47 y Domicilio 51 01 11

LEITZA (Navarra)

OIALDE TABERNA

- BAZKARIAK, BAZKALAUURREKOAK ETA OTARTEKOAK
- KAFEAK, ARDOAK ETA LIKOREAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 00 77

LEITZA

ETXE - TRESNAK

ARGI - INDAR INDUSTRIALA
HIFI - TELEBISTA - BIDEO


RADIO eta TELEBISTEN KONPONKETA
TELEBISTARAKO ANTENA eta PARABOLIKA JARTZEA
ELECTRICIDAD INDUSTRIAL
T. V. - HIFI - VIDEO

REPARACION DE RADIOS - TELEVISORES
INSTALACION DE ANTENAS DE T.V. Y PARABOLICAS

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 51 02 08 - 51 01 81

LEITZA



Azpiroz y Saralegui

Pesta zoiiontsuak opa dizkizue

Os desea felices fiestas

- Zerbitzu orokorreko herrilanak
- Eroate lanak
- Hirigintz lanak
- Indusketak
- Ormigoari armatua
- Ormigoiezko errei eta arekak
- Obras públicas
- Conducciones
- Urbanizaciones
- Excavaciones
- Hormigón armado
- Viales y cunetas de hormigón

CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI

OFICINAS

Alfonso el Batallador, 8
31007 PAMPLONA
Teléfonos: (948) 17 48 32
17 48 33


Polg. Industrial Albisualde, s/n.
31870 LEKUMBERRI (Navarra)
Teléfono (948) 50 44 40



Polígono Industrial Albisualde, s/n
Tfno. (948) 50 44 10 • Fax (948) 60 45 02
LECUMBERRI (Navarra)

- ERAIKETARAKO MATERIALAK • ZERAMIKAK
ETA BAINUAK • ALKILERRAK. PINTURAK
• P.V.C.-zko LEIHOAK
AURREKONTUAK EGITEN DIRA

Pesta zoiiontsuak opa dizkizue



Jai zoriontsuak
Felices fiestas
Libreta
Central
Hispano

YOKINE

ILEAPAINDEGIA

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Elbarren, 35 • Tel. 61 09 31 • LEITZA



JOGAR

LEITZARAN

EXPERTOS
INMOBILIARIOS


- Compra venta y arrendamientos de inmuebles
- Tasaciones
- Asesoría

Luis Lizartza Saralegui




ASOCIACION PROFESIONAL DE
EXPERTOS INMOBILIARIOS

Elbarren 20, 1º
Telf. (948) 61 09 42
Fax 61 09 42
31880 LEITZA



Carpintería de Aluminio

ALUMINIOS **Erviti**



*Fabricación y colocación de ventanas, contraventanas,
puertas, cerramiento de balcones y terrazas.
Mamparas de Baño y Ducha.*

Jai zoriontsuak opa dizkizue

Tel. 50 08 13 - Fax 51 03 49 • EGUIARRETA (Navarra) - LEITZA